

gizartea
kristautasuna:
azterketa kritikoa

GEU

2,40 €

2008ko ekaina

185

arabako ikastolak

araba euskaraz 08

armentia ikastolak 15

arantzabela ikastolak 25

musika

maialen errotabehere


euskara

mintza eguna

bastida eta euskara

Basado en el libro
UN TRANVIA EN SP.
Premio Nacional de Narrativa 2002

Un poco de chocolate



**AITZOL
ARAMAIO**

CEGASA

Energiaren indar bizia

BELAUNALDI BERRI BATENTZAKO PILA BERRIAK



Ekipo elektroniko berriek energia berria behar dute eskaintzen duten korrante intentsitate altuko premiei erantzuna emango diena.

*Cegasa-k erronka berri honi emandako erantzuna **CEGASA EVOLUTION** da, goragoko potentzia garatzen duen prestazio askotako pila alkalinoen belaunaldi berria, azken belaunaldiko aparatuentzako energia iturri egokiena.*



CEGASA INTERNACIONAL, S.A. Artapadura, 11 - 01013 GASTEIZ

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

Bezeraentzako arreta telef.: 902 32 22 32 www.cegasa.com

geu aldizkaria.
urteko kuota: 20.- euro.

sumarioa 185

geupertsonaia

aitzol aramaio, zine zuzendaria
'un poco de chocolate' 7-11

geugaia

arabako ikastolak: aitzindariak; araba euskaraz 08;
armentia ikastolak 15 urte; arantzabela ikastolak 25 14-19

arte txokoa / musika

batekmila: maialen errotabehere (baiona) 23-25

batbitan

mintza eguna. ekainak 14. getxon 26-27

bathirutan

andoni arenaza:
'kristautasunari azterketa kritiko bat' liburua 28-30

historia&euskara

bastida eta euskara 34-35


beste:

gaztezulo 20

literatura dosi txikitan 31

geusex 37

agenda, kaletik, euskaltasunean, proposamenak, araba bixotzian,
historia zutabea, errezeta eta umorea



7-11




23-25



28-30

GEU

GEU aldizkaria | GEU Elkartaren ekimenez sortua (1992) | Geu aldizkariako taldeak egina, bideratua eta kudeatua | erredakzioa: Pedro Asua kalea, 2 - 3.a. 01008 Gasteiz | tfnoa. eta faxa: 945 22 21 53 | geugaste@grn.es | geu@geugasteiz.com | www.geugasteiz.com | zuzendaria: estitxu breñas glz. de zarate | aldizkariako batzordea: david alvez, edurne begiristain, josune verez de mendizabal, edorta sanz eta estitxu breñas | kazetariak: josune verez de mendizabal, edurne begiristain, ainhoa arriaga, naraia cuesta, ane pedruzo eta josune garcia de bikuña | azaleko argazkia: edorta sanz | argazkiak: edorta sanz | bestelako irudiak-bilaketa: estitxu breñas glz. de zarate, david alvez | testuen zuzenketa-orratzketa-osaketak: estitxu breñas glz. de zarate | itzulpenak: geu aldizkaria eta aztiri | maketa: dalvez | umorea & araba bixotzian: iñigo sarasola | kolaboratzaileak ale honetan: kike fdz. de pinedo, mikel ayerbe, edu zelaieta, erlantz urtasun, maider garcia de bikuña (emaize sexologia zentroa), andoni rodriguez (diocesanas-mendizorrotzako ostalaritza eskola) eta gaztezulo. | publizitatea: idoia breñas, geu aldizkaria | sustapen-harpidetza saila: geu aldizkaria | harpidetza-publizitate laguntzailea: edurne begiristain | inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) | lg: VI-582/92 | issn: 1133-0988 | Frankeo Itundua 48/27 zenb. | aldizkari hau paper ekologikoaz egina dago | GEU aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.



www.geugasteiz.com

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

zeregineuskaraz [ekaina]



GEU ELKARTEA

GEUREKIN MENDIRA

ekainak 22 igandea
AIAKO HARRIA (837m.)
EGUN OSOKO irteera
lovaina plazatik / kotxez
ordua: 9:00
arduraduna: joseba (945200973)
geurekinmendira@gmail.com

KULTUR ERROTA

ekainak 17 astearte

IKUS-

ENTZUNEZKOA:

APAIZAC OBETO

ESPEZIZIOA (JON

MAIA)

2006ko ekainaren 5ean hasi zen espe-
dizioaren xedea, kanadako arkeologo-
ek ikertu duten eta ikertzen ari diren
XVI. mendeko euskal bale eta bakaila-
ozaleen dozena bat kokaleku baino
gehiagotara joatea. sei aste inguruko
bidaia, arraunean. halaber, euskal ba-
lezale eta bakailao arrantzaleekin ha-
rremanak zituzten indigenen tribuak
ere bisitatu dituzte, berezko kulturen
eta ahozko tradizioaren berri emateko.
Geu eta AFAK antolatuta (batekmila)
parral tabernan, 20:30



IRAKURLE KLUBA

ekainak 26 ostegunarekin
KARLOS LINAZASORO, DIOTENEZ.
EREIN 2007

hikaateneoan, pintore kalea 13,
20:00

kontaktua: iban.zaldua@ehu.es

www.geugasteiz.com

geuelkarte@grn.es / 94522215

ARABA EUSKARAZ 08

ekainak 15

BASTIDAN

www.arabaeuskaraz.net



ARMENTIA IKASTOLA

ARMENTIA IKASTOLAK 15 URTE

ekainak 6

SAIO IREKIA: BERTSO TRAMA

(JULEN ZULAIKA)

ekainak 8

BTT-KROS LASTERKETA

armentiako basoan

gatzela ataria, 101-gasteiz

armentia@ikastola.net

ARANTZABELA IKASTOLAK 25 URTE

ekainak 7

-IKASTOLAKO JAIA

askotariko ekintzak

-ARGAZKI ERAKUSKETA

(ikastolako historia)

ekainak 7 arte



ANTZERKIA: 'EZKER-ESKUMA'

(glu-glu produkzioak)

ekainak 6

3 euro (6 euro 30 urtetik gorakoek) /
salmenta tokiak: zuloa, gong, disco
laser

[IKA euskaltegiko ikasleentzat sarre-
ra doan]

IKA & GAUEKOAK antolatuta

aldabe g.e.-an, 20:30

euskera@gaukoak.com

www.gaukoak.com

MINTZA EGUNA



MINTZA

EGUNA 08

ekainak 14

GETXON

mintzalaguna egitasmoaren partaide-
entzat

-11:00 : ongi-etorria portu zaharreko
orubean

(bertsoak, dantza, txalaparta, suzi-
riak eta gosaritxoak)

-11:30: ibilaldi gidatua XABI PAIAREN
laguntzarekin

-13:30: kalejira

-14:30: bazkaria

-bazkalostean: sari banaketa eta

erromeria

euskara elkartearen topagunearen es-
kutik

www.mintzapraktika.org

UEU

IKASTAROAK

izena emateko epea: ekainak 20
soziologia, informatika, ipuin-konta-
laritza, kimika, gorputz-adierazpena,
kazetaritza, hizkuntzalaritza, psikolo-
gia, pedagogia...

ekainak 30-uztailak 25

inf+ & izena-ematea:

www.ueu.org

MUSIKA MAKETEN

II. LEHIAKETA

maketak aurkezteko epea: irailak 1
araban erroldatutako musikarientzat
jatorrizko musika eta hitzak

lehen saria: 7.000 euro

AFAko euskara, kultura eta kirol sai-
laren ekimenez

www.alava.net

DURANGOKO AZOKA:

KARTEL LEHIAKETA

entrega epea: ekainak 27

saria: 1.300 euro

gerediaga elkartearen, astola auzoa,

26 (48220 abadiño)

inf+: 946818066

gerediaga@durangokoazoka.com



KREA PROIEKTUAK & KREA GAZTEA

SORTZAILEENTZAKO BEKAK

ekainaren 30era

inf+: 945150147

www.kreared.com

LIBURUTEGI BIZIDUNAK

(ekainera bitartera)

gizarte etxetako udal liburutegietan

[gonbit-txartelak: dagokion gizarte

etxeko liburutegian, jardura hasi

baino astebete lehenagotik]

www.vitoria-

gasteiz.org/bibliotecas

IPIUIN KONTALARIA. JAN ETA LO:

POTOLO

ekainak 4

3-5 urte

el pilar g.e.-an, 18 :00

IPIUIN KONTALARIA. LIBURUEN

IRATXOA

ekainak 5

3-5 urte

judimendi g.e.-an, 18 :00

IPIUIN KONTALARIA. IPUINEKIN

JOLASTEN

ekainak 12

6-10 urte

lakua g.e.-an, 19 :00



montehermoso

TXIKIART

MONTEHERMOSO KULTURUNEA

larunbatero, 18:00

nagusi & umeen arteko erakusketa-

tailerra

945161830

www.montehermoso.net

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) lagundutako egitasmoa

Ume zaintza

Ikastola, haur eskola,
eskolaz kanpoko ekintzak...
Eraman eta jaso

Goizez, arratsalde, gauez... Orduka

Deitu eta aurrekontua eskatu
konpromisorik gabe

945 23 53 78

info@zainbide.com



Dato kalea, 14-16 - 3. A
01005 Vitoria-Gasteiz
www.zainbide.com



**EUSKAL ESKOLA
PUBLIKOAREN 17. JAIA**
ekainak 1, barakaldon
www.ehige-jaia.org



SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA BIKOTEEN ARTEAN HIZKUNTZA OHITUREN ALDAKETA IKERKETA-LANA

Soziolinguistika Klusterraren misioa euskararen berreskurapen eta normalizaziorako soziolinguistika ezagutza garatzea da.

Ikerketa honen helburua hizkuntza ohitura aldatu eta kasu honetan, GASTEIZEN bizi diren bikoteak aztertzea da, aldaketa hori nola eman duten jakiteko. Bikote horiek garai batean erdaraz egiten zuten, eta aldaketa eman ondoren, gaur egun, beraien komunikazio hizkuntza nagusia euskara izan behar da. Bikotearen hizkuntza harremana euskaraz izateak bikoteakideen euskararen gutxieneko ezagupen maila suposatzen du noski. Bikotea edozein "motakoa" izan daiteke: ezkontuta daudenak/ez daudenak, seme-alabak dituztenak/ez dituztenak...

Ikerketa hau burutzeko zuen borondatarrezko laguntza eskertuko genuke, beraz, Gasteiz, Laudio, Irun, Arrasate, Donostia, Hernani, Lasarte-Oria, Beasain, Tolosa, Zarautz, Igorre, Bilbo, Durango, Balmaseda, Bermeo, Lekeitio eta Mungia herri/hirietan bizi bazarete eta hizkuntza ohitura aldaketa egin baduzue, guri jakinarazi edo aldaketa bizi duten bikote

batzuk ezagutarazi. Bikoteekin harremanetan jartzeko bideak ematean galdesorta bat pasatuko diogu eta ondoren 45 minutuko elkarriketa egingo diogu bikoteari. Gurekin harremanetan jartzeko: ziortza@soziolinguistika.org Proiektuaz edo Egitasmo Estrategikoez informazio zehatzagoa nahi izanez gero, Soziolinguistika Klusterraren bulegoan eska dezakezue: kluster@soziolinguistika.org edo 943592556. Edo webgunera bertara jo: www.soziolinguistika.org



IPARRALDETIK GASTEIZA KONTZERTUA



**MAIALEN
ERROTABEHERE**
jazz, folk, blues-a. baiona
KIKI BORDATXO

eskusoinua, arrabita, ttunttuna eta tuba. lapurdi

**EKAINAK 13 gasteizko AIHOTZ
PLAZAn (matxete) 21:00**
BATEKMILA erakusketaren ekintza osagarria antolatzaileak: AFA / GEU aldizkaria&elkartea / Gasteizko Udala

ARABAKO ESKOLARTEKO FINALA

ekainak 7
armentia Ikastolan, 9:00: idatzizko finala / 10:30: bat-batekoa sailkatutakoak:
- Antton Karretero (Aramaio-GORBEIALDEA)
- Beñat Zalakain (Aramaio-GORBEIALDEA)
- Maria Izaga (Aramaio-GORBEIALDA)
- Bingen Sainz (Arrizala-LAUTADA)
- Ainhoa Comas (Amurrio-AIARA)
- Beñat Olano (Gasteiz-GASTEIZ)
www.blogak.com/gasteiz-bertsozale/eskolarteko-txiki-en-finala-osatua

AITZOL ARAMAIO,
ZINE ZUZENDARIA:

"Eleberria irakurtzen sentitu emozioa hain izan zen sakona ez nuela zalantzarik izan, ez ninduen ezerk geldituko. Hori kontatu beharra nuen"




t. josune velez de mendizabal

a. edorta sanz & artxibo

Bode. Gasteizko Alde Zaharreko taberna, ekartzen du gogora Aitzolek zinemagintzan eginiko lehen kontuez galdetzean. "Lagun bat eta biok bertan entzun ohi genuen Mikel Laboaren 'Lilia' kanta eta bideoklipa egitea gustatuko litzaigukeela pentsatzen genuen", dio. Laster bihurtu zuen nahia lan eta Kepa Junkera, Berri Txarrak, PLT edota Mikel Urdangarin musikarientzat, besteak beste, burutu zituen hain gogoko zituen bideoak. "Ideia zoragarria iruditzen zait, oso askea baita. Taldea ezagutu eta elkarlanean aritu", nabarmendu du.

Ibilbide luzea du Aitzol Aramaio bere ikus-entzunezko bidean, Interneteko bilaketan 'Terminal' bere film labur sarituari soilk erreferentzia egiten bazaio ere. Kontatzen hasita, telebistan lanean izan da 'Lo que faltaba', 'Super bat' edo Eva Argiñanoren programarako. Dokumental pare bat ere ekoiztu ditu, baita iragarkiak sortu ere. "Argazkilari ere izan naiz -bukatu du zerrenda luzea-, Bosniako gudan egon nintzen argazkiak egiten. Egia esan, ez naiz inoiz gelditu".



Itsasokoa jaiotzez baina lehorrera etorri zitzaigun Aitzol Aramaio (1973) ondarrutarra duela zenbait urte, Gasteiza bizitzera hain justu. Ikus-entzunezko ikasketak bertan burutu eta ordutik maiteminduta geratu zen hiriarekin. Orduko garaietatik datorkio Aitzoli Gasteizekiko zein zinemarekiko lotura. "Niretzat Gasteiz herri handi bat bezalakoa da, gainera bertan daukat neska-laguna eta lagun koadrila ederra" -onartu du. 'SP-rako tranbia' Unai Elorriagaren eleberria oinarri zine zuzendari bilakatu berri da Aitzol Aramaio 'Un poco de chocolate' bere lehen film luzearekin.

'Terminal' film laburra izan da Aitzol Aramaioaren orain arteko aurkezpen txartela. Orain berriz, 'Un poco de chocolate' lehen film luzearekin estreinatu zara. Bata bestearen atzetik nahitaez?

Labur hori egin nuen 2003/04 urtean, egin behar nuelako, kontatu nahi nuelako Ondarru aldean heroinak zenbat jende eraman zuen bere garaian. Gerora, Berlinale-n labur onena aukeratu zuten, Venezian ere ikuslearen saria eskuratu zuen, New Yorken jaialdi potente bat irabazi genuen... Laburrak kriston aukera eman zidan jakiteko egindakoak balio eta funtzionatzen zuela. Jende asko ezagutu nuen ondorioz eta ate asko ireki zizkidan.

Zergatik aukeratu zenuen Unai Elorriagaren 'SP-rako tranbia' zure lehen film luzerako?

Unairen nobela irakurri nuenean asko hunkitu nintzen eta oso identifikatua sentitu nintzen pertsonaiekin. Nire barrurako pentsatu

'un poco de chocolate'
euskal herria-08 / aitzol
aramaio
www.unpocodechocolate.com

"UN POCO DE CHOCOLATE lau pertsonaia eta bizitzaren bi garairen istorioa da, baita bidaia batena ere. Itxaropena, xamurtasuna, memoria, baita heriotza ere, dakartzan marrazkia. Eguneroko bizitzaren lau bidaiari, erakutsiko digutenak bidean eguraldi txarrari aurpegi ona erakutsi behar zaiola. UN POCO DE CHOCOLATEk gogorazten digu bizitza argiz beteriko esperientzia dela, opari bat. Filma ispilu bat da, zeinak pertsonaia kutun eta baikorren distirak ageriz, gu geu islatu eta hobetzen gaituen. Ikusleari amestarazi nahi dio, plazera eskaini, bidaia amaitzean bizitzarekin berradiskidetu dadin lortu".



nuen, "hau kontatu behar dut", eta horrek eman zidan indar guztia aurrera egiteko, baita produktora bat bilatzeko ere. Eleberria irakurtzen sentitu nuen emozioa hain izan zen sakona ezen ez nuen zalantzarik izan, ez ninduen ezerk geldituko.

Zein da bada sentitu zenuen kontatze-ko premia hura?

Bizitzaren aurreko ikuspegi positiboa nahi genuen kontatu istorio honekin. Horrek ez du esan nahi filmean arazorik eta zailtasunik ez dela agertzen, baina hala ere ikusten da nola baikortasuna eranskorra den. Film honi ekitean banekien hiru urte iraungo zuen bidaia sortzera nihoala eta positiboa behar zuen bidaia honek. Disfrutatu hitza oso azpimarratuta nuen buruan. Horregatik, bai ekipo teknikoko pertsonak bai aktoreak, bidaia honekin bat egingo zutenak aukeratu nituen. Eta benetan horrela izan da.

Bidaide euskaldunak gehienak baina baita zinemako nazioarteko izenak

ere, hala nola, Hector Alterio eta Daniel Brühl... Nola erabaki, salmentari begira?

Kastinga egin nuenean oso argi nuen bertako jendea izan behar zuela, errodajea euskaraz asko hitz egingo genuen eta. Beste baldintza bat jatorrak izan zitezela zen. Horregatik aukeraketa egin baino lehen lantaldea maila pertsonalean ere nolakoa zen jakin nuen. Hauxe gakoa baitzen errodajea ostean dena ondo joan zedin.

"ZU ETA ZUREKIN BATERA EKIPO OSOA HUNKITUTA DAGOENEAN PROIEKTUAREKIN EZ DAGO ENER-GIA HORI GELDITUKO DUEN OZTOPORIK"

Esan beharra dut nik lehenengo momentutik euskaraz egin nahi izan nuela filma,

baina behin produktorari gidoia ematerakoan gazteleraz egin nezala esan zidan. Orduan, eta gazteleraz izanik, Hector Alteriorekin pentsatu nuen. Gidoia bidali eta baietza eman zuenean beste aktore indartsu batzuk behar nituen. Zirrarez hitz egiten duen istorioa izanik horrela behar zuen. Berlinera gonbidatu ninduten orduan eta han ikusi nuen Daniel Brühl. Zuzenean joan nintzen beregana, maitemindu behar nuen nire proiektuarekin. Eta ondo atera



zen. Gauza bera gertatu zen Julia Serrano eta Barbara Goenagarekin.

Euskarara ere bikoiztu duzu, halere?

Euskarazko bikoizketa eginda dago dagoe-neko, zinemetan estreinatuko ez den arren; distribuidorak agintzen du horretan eta behin pelikula amaituta gure eskuetatik ihes egiten du... Epe bat itxaron behar da telebistan bota aurretik.

Gustura oso aritu zarete ekipoa, baina hala ere zailtasunik egon al da prozesuan?

Goizeko zortzietan jendea oso pozik etortzen zen lanera eta ideiekin. Oso sorkuntzako prozesu kolektiboa izan da. Guztion artean egitea argi nuen eta hori komentatu nien hasieratik. Horregatik errodajea amaitzen zenean, iluntzeko 8etan, gaueko 12ak egiten zitzaizkigun berbetan.

Arazo bakarra eguraldia izan zen. Udan grabatu genuen eta pentsatzen genuen eguraldi eguzkitsua egingo zuela baina ez zen horrela izan. Dena den, euria egiten zuenean etxeko grabazioak egiten genituen eta listo. Hala ere, eta nabarmentzen dut, zu eta zurekin batera ekipo osoa hunkituta dagoenean proiektuarekin ez dago energia hori geldituko duen oztoporik.

“HARRIGARRIENA MALAGAN ETA MADRILEN AURKEZTU ZENEAN FILMA JENDEAK MUSIKARI ERREP-RATU IZANA. EZ ZEUKATEN HORRELAKO MUSIKA SEKULAN ENTZUNDA ETA IZUGARRI GUSTATU ZITZAIEN”

Emaitzari begira gustura geratu al zara? Eta Unai Elorriaga, zuk bere eleberriaz egindako egokitzenarekin?

Michel Gaztambiderekin batera idatzi dut gidoia. Baina hala ere, Unai argi nuen ez zela soilik izango eleberriaren idazlea, pelikularen prozesuan ere present egon da eta emaitzarekin oso gustura geratu da. Liburua hasieratik gustatu zitzaidan eta daukan ona da istorioa bera oso librea dela eta horrek aukera eman dit nire gauza asko ere bertan sartzeko. Unairekin horretaz ere hitz

egin nuen. Erabaki genuen tonuak xamurtasun eta goxotasunaren ildotik joan behar zuela, baina era berean nik ahal nituela sartu nireak ziren gauzak. Bestetik, literatura zinemara pasatzeko orduan pentsamendu asko zeuden eta nola transmititu hori? Off ahotsa oso astuna egiten baita... Pertsonaia asko kendu behar izan ziren eta indartu zeudenak... Egia esan plazer bat izan da.

“NI POZIK GERATU NAIZ BAINA EGIA ESATEKO EZ DITUT IRAKURRI EZ KRITIKA ONAK, EZTA TXARRAK ERE, USTE DUDALAKO MOMENTU HONETAN OSO SENTIBERA NAGOELA ETA ERAGINA IZAN DEZAKETELA NIGAN.”

MUSIKA

“Musikarekin egin dugun istoriarekin oso pozik geratu naiz”. Lemoiz inguruko Andrakaseko herrixkako Rufino Arrazola trikitilaria entzun zuenean Aitzol berarekin mantemindu zen. “Entzun nion tango hori nahi nuela esan nion Bingen Mendizabali”. Arin-arina, ezpatadantza, artzai dantza... Musika tradizionala behar zuen baina istorioarekin uztartuko litzatekeena. “Emozioak transmititzen zituen akordeoijolea behar nuen eta horra hor Josu Zabala, eta hori mundiala izan da!”. Bingen Mendizabalek orkestratu ditu euskal kantak ordea, “lan itzela” Aitzolen esanetan. “Harrigarriena Malagan eta Madrilen aurkeztu zenean filma jendeak musikari erreparatu izana. Ez zeukaten horrelako musika sekulan entzunda eta izugarri gustatu zitzaien”.





LOKALIZAZIOAK

Algortako portu zaharrean, Getxokoan, Bilbon, Zaldibi eta Portugaleteko zubi esekian. Errodajeak iraun duen bi hilabeteetan Aitzolek bilatu du jendea kontzentratua egotea toki bakar batean. "Ez nuen nahi gaur hemen bihar Madrilen eta horrela ibiltzea. Azken finean horrek norberaren burua desmontatu egiten du eta horregatik portu zaharrarekin batik bat emozionalki lotuta egon zitezen bilatu nuen".



Eta kritikak zer dio?

Ni pozik geratu naiz baina egia esateko ez ditut irakurri ez kritika onak, ezta txarrak ere, uste dudalako momentu honetan oso sentibera nagoela eta eragina izan dezaketela nigan. Aurrerago irakurriko ditut. Ikusi dudan gauzarik onena izan da Malaga, Madrilen, Gasteizen eta Getxon egon garela eta jende aurrean bota dugunean niretzat pasada bat izan da ikustea jendeak barre egiten duela, baita negar ere; oso hunkituta ateratzen da ikusleria eta nabaritzea ikusleei iritsi zaiela zure filma, hori niretzat sortzaile bezala oso handia da.

Hiru urteko lanaren ondoren zoriontasuna nagusi, baita nekea ere. Hala ere, pantaila handian Aitzol Aramaioen izena ikusiko dugu etorkizunean?

Gustatu zait pelikula egitea. Proiektua azken finean bidaia bat da eta horrela planteatu dut nik. Gainera niretzat pertsonalki oso aberatsa izan da eta oso ondo etorri zait pelikula hau egitea, alegantzia handiak egin dizkit, pertsona bezala aberastu nau eta gainera konturatu naiz zinemaz oso gutxi dakidala eta izugarri ikasi behar dudala. Zinemarekiko jakin-min handiagoa sortu dit

aitzol aramaioen (ondarroa, 1971) lehen film luzea. 2002an espainiako literatura saria irabazi zuen unai elorriagaren sp-rako tranbia eleberrian oinarritutako pelikula da.



algortan, gorlizen eta bilbo inguruan filmatu duten pelikulak lucas izeneko 80 urteko agurearen (hector alterio) istorioa kontatzen du. lucasek oroitzapenak eta errealtatea nahasten ditu eta shisha pangmaren (sp) gailurrera igotzearekin egiten du amets. halako batean, marcos (daniel brühl) ezagutuko du. julieta serrano, ramon barea, marian aguiler, barbara goenaga, mikel albisu eta gorka ottoa dira filmeko gainerako aktoreak. Bizitza, maitasuna, argia...



MENDIA OPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33
Gasteiz



- Zurezko teilatuak
- Berrikuntzak

Padurea kalea, 12, 16 Pab.
Goñain Industrialdea
Tl/fxa: 945 465 921
Tl. 627 417 747
info@egur.es
www.egur.es
01171 Legutiano (Araba)



**eusko
alkartasuna**

www.euskoalkartasuna.org
c/ san prudencio 3
gasteiz-erdialdea



**Gazte
Abertzaleak**

www.gazteabertzaleak.org
c/ vicente manterola z/g
zaramaga

Euskeraz Araban BAI



geu elkarte, kultur ekitaldiak euskaraz

945 22 21 53
geu aldizkaria & elkarte
pedro asua, 2 - 3.a
01008 gasteiz
www.geugasteiz.com



jaso geu aldizkaria etxean

izena _____
abizenak _____
helbidea _____ herria _____
posta kodea _____ telefonoa _____ adina _____
e-posta _____



ANDRE MARIA ZURIAREN PLAZA (II)

Martxoko alean, oraindik Andre Maria Zuriaren plaza amaitzeke zegoela, kalera irten ginen iritziak jasotzera. Behin eraberriketa amaituta dagoela, gasteiztarren iritzia ezagutu nahi izan dugu ostera:

t./a. josune garcia de bikuña

- 1.- Uste al duzu beharrezkoa zela Andre Maria Zuriaren plaza berritzea?
- 2.- Zer deritzozu eman dioten itxura berriari?
- 3.- Monumentua mententzearen edo kentzearen aldekoa zara?



Oier LLinas, ikaslea

- 1.- Beharrezkoa agian bai, baina horrela uztea ez.
- 2.- Ez dut batere gustuko. Lorategiak kentzea hanka-sartze izugarria izan da.
- 3.- Nire ustez orain gaizki dago ez duelako zeri-kusirik inguruan duen estiloarekin, beraz, nik kenduko nuke.



Joseba Amezkua, muntatzailea

- 1.- Batere ez.
- 2.- Ez zait gustatzen, modernoegia dela iruditzen zait.
- 3.- Orain ez dator bat inguruarekin, beraz, kenduko nuke.



Naiara Quintana, estetizista

- 1.- Uste dut ez zela beharrezkoa.
- 2.- Itxura berria modernoegia da inguruarekin konparatuz.
- 3.- Nik ez nuke kenduko.

literatura dosi txikitan

STREAP-TEASE INTEGRALEAN

t. edu zelaieta



Genero beltz klasikoaren kutsu narbarmena izan zuen aferak hasiera-hasieratik. Eduardo Zelaietarekin mintzatu nahi omen zuten. Erantzungailuan hala zioen mezua aurkitu nuen 2006ko urriko egun sargoritsu hartan; aski tonu solemnean ari zen emakume baten ahotsean. Ostegun arratsaldean deitu zuten, 7ak inguruan, eta erantzuna lehenbailehen behar zutela argi adierazita. Berantetsi gabe, bestela...

Neuretzako lan eskaintza bide zen dei bakararren arrazoia. Dei bakarra eskaintza bikoitza egiteko. Batetik, astean sei orduz aritzearen truke, 354 euroko soldata eskaintzen zidaten. Bestetik, astean zortzi orduz lan egitearen truke, 473 euroko jorнала. Lehen kasuan Donostian lan egiteko zen. Bigarreanean, aldiz, Gasteizen jarduteko.

Euskal Herriko Unibertsitatearen streap-tease ezin lizunagoa iruditu zitzaidan; ez ninduen gehiegi kilikatu akademiaren jantzi-erantziak: irakasleak azken momentuan kontratatuz eta gauzak behar bezala antolatzeak denborarik ez; lau sosetan prestigioa emanez eta zabalduz, jakituria-aren erakundearen leloak dioen legez. Ongi gogotan dut elkarriketa: euskaraz ari izanagatik ere, coser y cantar esan zidan telefonoz bestaldeko emakumeak.

Hortik aste batzuetara, azaroko egun petral eta euritsu batean, eskaintza hobe bat egin zidan ordurako ezaguna nuen ahots eztiak. Harrezkero, urte eta erdi pasa joan da, Gasteizko Irakasle Eskolan ari naiz eskolak ematen, kontratu partzial batekin streap-tease integralean: UPV-EHU santu honetan ia 12 urtez prestatzen aritu ondoren (eta ondorioz?), lizentziatura eta doktoretza burututa, ama eta aita pozik eta harro baldin baditut ere, zein bizi-proiektu egin dezake pertsona batek 695,44 euro* kobratuta? Erantzunak eta soluzioak onartzeko prest nago, jakina, genero beltzak larru-gorritan utzi bagaitu ere■

*Soldatari kotizazioa eta atxikipen fiskala kendu behar zaizkio. Hilero kendu ere!

ARABAKO IKASTOLAK LAN ESKERGAREN FRUITU

Arabako ikastolen ibilbidea 60. hamarkadan hasi zen, Francoren diktaduraren azken garaian. Baliabide gutxi, ahalegin asko, eta erronka handiari aurre eginez egin zituzten lehen urratsak ikastolek gure herrialdean.

t. edurne begiristain
a. edorta sanz

AITZINDARIAK

Bideari ekiten aitzindaria izan zen **Olabide Ikastola**, 1963an kokatu behar baita bere historiaren hastapena. Urte hartan, Gasteizko dozena erdi bat familiak erabaki zuten beren seme-alabei hezkuntza alternatiboa eskaintzea. Erronka handia zuten esku artean: euskara, eta euskal hezkuntzari tokia egitea, klandestinitatean. Hamalau ikasle hasi ziren Zerkabarren kaleko etxebizitza batean, Izaskun Arrue andereño zutela. Hasiera zaila izan arren, sortzaileek ez zuten etsi. Izan ere, nahiz eta ikastetxea ez zen ofiziala eta ez zuten inolako laguntzarik jasotzen erakundeetatik, nahiz eta izaera juridikorik ez zuten eta ezin promozio publikorik egin, eskaera gero eta handiagoa zen. 1966-67 ikasturtean baziren 34 ikasle izena emandakoak, eta 1967-68 urtean, berriz, 85, 3 andereñorekin. Ikastolaren hazkundera ikusita familiek erabaki zuten ikastetxe gisa legeztatzea. Hamaika trikimailu eginda lortu zuten garai hartako (Francoren diktaduraren azken garaia) Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak 1968an Aita Raimundo Olabide Ikastetxea izendatzea. Orduan Estibaliz hiribideko hiru etxe egoitza zirela, 1973an (496 ikasle) finkatu zen Olabideko hezkuntza egitasmoa, kooperatiba gisa, eta oraingo ikastolaren lehen eraikina 1975eko apirilaren 19an inauguratu zuten (646 ikasle). Egun 1.500 inguru dauzka.

ARABA EUSKARAZ 2008. BASTIDA IKASTOLA

'Ametsak dirau' lelo hartuta egin-go da hilaren 15ean Araba Euskaraz, Bastidan. Bertako ikastola diruz laguntzeko antolatu da aurtengo Araba Euskaraz. Arabako Errioxan dago Bastida Ikastola, orain dela 29 urte gogo biziz hasi zen egitasmo handia. 12 ikasle eta andereño batekin abiatu zen ikastola, eta orain 200 ikasle eta 13 irakasle ditu Haur eta Lehen Hezkuntzan. 2-12 urte bitarteko haurrak hezten dituzte Bastidan.

Bastida Ikastola Arabako ikastolen mugimenduaren partaide da, eta Partaide Ikastolak elkarteko kide den heinean Arabako beste ikastola hauekin aritzen da elkarlanean: Assa Ikastola (Lapuebla Labarka), Aresketa Ikastola (Amurrio), Armentia Ikastola (Gasteiz), Laudio Ikastola eta San

Bizente Ikastola (Oion).

Euskarak Bastidan izan duen bilakaera etengabekoa izan da azken hamarkadetan. Oinarri sendoak eraiki ditu poliki-poliki amets baten alde. 1989. urtean pauso garrantzitsua eman zen, Bastidan egin zen lehen Araba Euskarazi esker. 2004. urtean, hamabost urte lehenago gertatu bezala, jendetza pilatu zen Bastidan ikastola berri bat aldarrikatzeko. Urte hartako jaiak arrazoi argia zuen: Udalak utzitako eraikina txiki geratu zen, urtero 15 matrikulazio berri inguru zituzten, eta. Orduko ametsa ikastola berria egitea zen. Gaur egun ikastola hori eginda dago (2006an inauguratu zen), baina erronka berriei heldu nahian jarraitzen dute Bastidan.

Hala, ekainaren 15ean beste urrats sendo bat eman nahi du

Arabako Errioxak euskararen alde. Ikastolak eskaerari nekez egin diezaioke aurre egun: 200 ikasle inguru ditu eta 13 irakasle, baina Bastidan eta inguruko herrietan izan duen harrera bikainak eraikin berria egiteko laguntza ekonomikoa premiazkoa du. Aurtengo Araba Euskaraz jaiak beharrian horri aurre egitea du helburu.

'Ametsak dirau' leloarekin eta mahatsa oinarri duen irudiaz atonduta etorriko zaigu 2008ko Araba Euskaraz. "Ilusioa eta ametsa" aipatu zituzten antolatzaileek aurkezpenean eta ekainaren 15ean sentimendu horiek nagusitu daitezten nahi dute. Bastidako ikastolaren ametsa indarrean da oraindik, ilusioz ekin zioten ikastola handitzearen asmoari 2004an eta aurtengo leloarekin horixe islatu nahi

izan dute. Abestia sortua dago jada, herriko talde bat izan da horren arduradun. Logoa ere aurkeztu dute eta, nola ez, Arabako Errioxako ardoarekin zerikusia duen irudia da, ikastolako bi andereñok diseinatura.

2004ko Araba Euskaraz jaia ere Bastidako ikastolak antolatu zuen, ikastola hazten zihoan heinean eraikin berri baten beharra zutelako. Kostuei aurre egin behar diete oraindik ere eta baldintzak hobetu nahia dute. Horretara bideratuko dute, hain zuzen, Araba Euskaraz 2008an bilduko duten diru guztia. Festa giroa ziurtatu dute, ekainaren 15ean Bastidan izango den Araba Euskaraz honetan. Ibilbidea duela lau urtekoaren antzekoa izango da, eta ikastolatik bertatik abiatuko da.

1973. urtean sortu zuen Arabako Foru Aldundiak **Ikasbidea Ikastola**. Txagorritxu auzoan, Hezkuntza Publikoko Haur eskola batean, behin-behingo, kokatu zen. Lehenengo ikastaldea Pilar Askolizaga andereñoarekin martxan jarri zen, eta Euskara zerbitzuko arduradun Visitacion Oartzabal zelarik. 1976-77ko ikasturtean gaur egun dagoen ikastetxean finkatu zen Ikasbidea, Duranako herrian, Aldundiak Corazonistas prailegaien ikastetxea erosi ondotik. Konponketa eta egokitzapen ugari eginda, ia 300 ikasle hartu zituen. Azkar igo zen ikasle kopurua handik aurrera. Horrela, haur Hezkuntzako hiru mailetan eta garaiko OHOk zortzi mailetan hiruna ikasgela zeuden, eta Batxilergoko hiru mailetan bina gela, baita UBI ere. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sare publikora transferitua izan zen, 80. Hamarkadaren bukaeran. Gaur egun Araban dagoen ikastola publiko integratu bakarra da: 110 irakasle eta 1.200 ikasle ingururekin.

1974an sortu zen **Umandi Ikastola**. Garai hartan euskaraz umeak eskolatzeko aukera gutxi zeudela-eta, gasteiztar talde batek egitasmoa martxan jartzea erabaki zuen. Helburu bikoitzarekin ekin zioten lanari: umeak euskaraz ikastea eta pedagogia aurrerakoiaren bitartez umeak eskolatzeko. Hasieran, Jose Lejarrera kaleko etxe bateko gela batean hasi ziren klaseak ematen. 1976-77 ikasturtean bi gela zeuden 2 eta 3 urteko umeekin eta hurrengo ikasturtean lau gela izatera iritsi ziren 2, 3 eta 4 urteko umeekin, eta lau irakaslerekin. Hasiera gogorak izan ziren, baliabide eskasak, finantziario eza eta zailtasun ugari.

Baina, gurasoen eta babesleen kuoten bidez poliki-poliki aurrera egin zuen. 80. hamarkadan Lakua-Arriagako eskola batean jarraitu zuten euren egitasmoa aurrera eramaten. Ikastola publikoa izatea izan zuen Umandik hasieratik aldarrikapen, eta azkenean, asko borrokatuta, 1994an beste ikastola batzuk bezala publikoa izatera pasa zen. Egitasmoa handituz joan da hasieratik: 1977an 4 irakasle eta 70 bat ikasle baino ez ziren, eta egun ia 50 irakasle eta 600 ikasle ditu.



ekainak 15 BASTIDA

araba euskaraz

ametsak dirau

www.arabaeuskaraz.net

ARANTZABELA IKASTOLAK 25

BRIGI LEJARAZU, IKASTOLAKO ZUZENDARIA:

“Gurasoen eta ikasleen inplikazioa handia izan da betidanik”

Mende laurdena bete du aurten Gasteizko Arantzabela Ikastolak. 1983-84 ikasturtean hasi zen lanean, egoera zailari aurre eginez, baina ilusioz beteta. Ikasleek, gurasoek eta irakasleek elkarrekin egin dute gaur arteko bidaia. Brigi Lejarazu zuzendariarekin eta Jon Molina gurasoen elkarteko presidentearekin mintzatu gara.

1983an egoera latza zen, eta baliabideen eskasia nabarmena. Nola gogoratzten dituzu Arantzabela Ikastolaren hastapenak?

Bastiturri kaleko Los Angeles elizan hasi ginen, hiru gela alokatu genituen, eta nire hasiera hor izan zen, beste bi irakasleekin batera. Arantzabela Ikastola gerora etorri zen. Ikastola bakarra Duran zegoen, baina bertan ez zegoen toki nahikorik, eta Gasteizen ikastola berriak sortzeko premia zegoen. Duela 30 urte ni eliza horretan hasi nintzen lanean, eta hortik ikasleekin joan nintzen Angel Ganibet ikastetxera, eta egun Aranbizkarra Ikastola den eraikinera ere (lehen eskola publiko bat zen) mugitu behar izan genuen, bertan klaseak ematen jarraitu ahal izateko. Gure ikasle horiek Arantzabelara etorri ziren azkenean. Beraz, ikastola hasterako baziren 5 urte ikasle askori klaseak emanda genituela beste tokietan. Lehenengo urte horiek izan ziren zailenak. Oroimen gogorragoak ditut hastapen horietatik geroko urteetakoa baino.

Hastapen horietan, Itakara abiatu ziren bidaia-erakundeak bezala sentituko zirenen,

abenturaz eta arriskuz betetako bidaia-erakundeekin baitzenioten.

Bai, hala da. Egungo eraikinera joan baino lehen ez zegoen liburutegi, ez zegoen ezer, gelatinarekin egiten genituen fitxak, ez zegoen fotokopiagailurik.... Baina azpimarratu behar da gurasoak asko inplikatzeko zirela orduan, konpromiso handia hartu zutela ikastolaren alde. Horregatik uste dut nabarmenezkoa dela ikastola hau ez dela irakasleek egindako lanaren emaitza, guraso erdaldun askok ere apustu handia egin zutelako beren seme-alabek euskaraz ikas zezaten.

Atzera begiratuta, harro egoteko modukoa da ikastolak mende laurdena bete izana, ezta?

Bai, duda barik. Nabarmenezkoa da oraindik gurasoak asko inplikatzeko direla, eta edozein gauza eskatuta, beti daudela prest lan egiteko. Askok mugitzen dira. Gurasoekin, ikasleekin... denekin ditugu harreman onak.

Nola definituko zenuke Arantzabela Ikastola?



Oso giro ona dugu gure artean. Eta horrek eragin handia du irakaskuntzan. Gure artean ez dugu *rollo* txarrik. Guraso euskaldunak eta erdaldunak daude, eta nahiko ongi moldatzen dira euren artean. Gurasoen eta irakasleen inplikazioa handia izan da betidanik. Askok eta askok hasieratik gaude hemen, eta horrek harreman berezia sortzen du gure artean.



**JON MOLINA,
OIHAN GURASO ELKARTEKO PRESIDENTEA:**

***“Gurasook beste ekintza
batzuekin osatzen dugu
gure seme-alaben hezkuntza”***



Guraso elkarteak ikastolarekin batera sortu zen duela 25 urte. Zerk bultzatuta?

Garai hartan euskaraz irakasteko azpiegiturak oso kaskarrak ziren, eta dena zegoen egiteke. Administrazioari izugarritzko bultzada eta presioa egin behar izan zitzaion, eta hor ibili ziren gurasoak lan eta lan. Egun gauzak beste modu batekoak dira. Ez dut esaten oraindik borrokatzeko aukerarik ez dagoenik, eta gauzak eskuratzeko mugitu behar ez denik, baina egoera aldatu egin da.

Elkarteak horrenbeste urtez iraun ahal izateak esan nahi du gurasoak oso ongi antolatuta zaudetela, eta zuen lana beharrezkoa dela.

Urte hauetan guztietan nabarmentzekoa izan da gurasoen inplikazioa nahiko indartsua izan dela. Une honetam batzorde guztietan jendea dago, interesa dago, eta uste dut guraso askok ikusten dutela euren lana zeharo osagarria dela irakaskuntzan egiten den lanarekin; guk beste ekintza batzuekin osatu egiten dugu gure seme-alaben hezkuntza. Aipatu behar da ikastolako zuzendaritza taldetik parada ematen digutela parte hartzeko. Harro gaude gure lanaz, gure seme-alabez, eta ikastolaz oro har.

Aurrera begira zein erronka dituzue?

Erronka oso handiak ditugu aurrean. Orain artean Gasteiz osotik etorri izan dira umeak Arantzabelara, baina hori aldatzen ari da, eta epe laburrean ikastola hau Salburuako ikastola bihurtuko da. Eta ikastola horretan jendea desberdina izango da. Guraso bezala eta ikastola bezala ahalegin integratzaile bat egin behar dugu, eta kulturalki lan piloa egin behar dugu jende hori integratzeko, eta Euskal Herriko kultura eta hizkuntza bultzatzeko.

Nola ospatzen ari zarete urtemuga berezi hau?

Maiatzaren erdialdean jaialdia egin genuen, bai eta argazki erakusketa bat antolatu ere, ekainaren 7ra arte zabalik izango dena. Egun horretan Ikastolaren jaia egingo dugu hemengo ikasle eta ikasle ohientzat.

ARMENTIA IKASTOLAK 15 URTE

XABIER ARRIETA GOIRI, IKASTOLAKO PRESIDENTEA:

“15 urte ospatu ditugu, eta hurrengo urteetarako indarrak hartzeko asmoa dugu”

15 urte bete ditu Armentia Ikastolak. 2001eko urtarrilean aukeratu zuten Xabier Arrieta Armentia Ikastolako presidente. Berarekin solastu gara ikastolaren iraganaz, orainaz eta etorkizunaz.



Hamabost urte bete ditu Armentia Ikastolak. Atzera begira jarrita, nola gogoratzen dituzu ikastolaren hastapenak?

Armentia Ikastolak 1992ko irailean ireki zituen ateak, 2 eta 3 urteko haurrak eta BBBko lehenengo mailako gaztetxoak izan ziren lehenengo ikasleak. Ikastolen talde osoaren erabakia izan zen Gasteizen ikastola berria irekitzea eta beste aukera batzuk aztertu baziren ere, Oblatas eraikina erosteko erabakia hartu zen. Ordutik izan dugu ikastolen *Elkartasun Kutxaren* laguntza ekonomikoa, guk geuk bakarrik ezin izango geniekeen erosketarako egin ziren mailagueti aurre egin. Eraikina mojen etxea izanik ez zegoen eskolak emateko prestatuta eta hasieratik moldaketak egin izan behar geni-

tuen, baina bazegoen aurrera egiteko ilusio handia eta oztopo guztiak gainditu genituen. Ilusioak ilusio, Administrazioaren aldetik ez genuen izan harrera onik, garai hartan Jose Ramon Recalde eta Fernando Buesa zeuden Hezkuntza Sailean eta proiektuari hainbat oztopo jarri zizkioten.

Ilegaltasun egoeran egin zituen lehen urratsak, ezta?

Bai hala da. BBBko ikasgelentzako kontzerturik ez geneukan, honek eragin ekonomiko larria izan zuen eta urteetan pairatu izan dugu kontzertu eza.

Gela horiek ez kontzertatzea baino haratago joan zen Hezkuntza saila, guraso guztiei igorri zien idazki bana eta egunkarietako iragarkietan ere oharra atera zuen, non

adierazten zitzairen beraien seme-alabak ikastetxe ilegal batean eskolatuta zeudela eta beraien ikasketak ez zirela baliozkoak izango. Gurasoen erantzuna irmoa izan zen, ez zioten inolako kasurik egin idazki horri, ikasle guztiek jarraitu zuten ikastolan.

Eta ordutik gaur arte, zertan aldatu da ikastola bera? Zein erronkei egin behar izan die aurre?

Ikasle kopurua urterik urtera handitzen joan da. Egun 700 ikasle ditugu eta hemen-dik lasterrera 900 baino gehiago izango ditugu. Hazkuntza honek urteroko gela gehiketak eta egoitzaren moldaketak dakartz.

Baina hazkunde honetatik at baditugu

beste erronka asko: hizkuntza proiektua, teknologia berriak..., eta ez hori bakarrik, bihar-etzirako nahi ditugun ikasleen ezau-garriak, gizartearekiko eta kulturarekiko atxikimendua, egungo arazoan aurrean nola gaituko ditugun, eta abar.

Zeintzuk dira gaur egun ikastolak dituen erronka nagusiak?

Hezkuntza mundua gaur egun zurrumbilo handia da. Batetik, gizarte mailan asko gailentzen diren gaiak ditugu, esku artean beti eta gori-gori: ikasleen formazio integrala, prestakuntza akademiko aditua zuzentzea, gure gizartean eta gure herrian bizi ditugun erronkei aurre egiteko moduko ikasleak gaitu beharra, teknologia berrien inplantazioa... Hala ere, egunean-egunean pisua hartzen ari dira beste alderdi batzuk ere: ume eta nagusien arteko bizikidetza gaien kudeaketa, irakaskuntza ereduaren tokian tokiko lanketa, behar bereziak dituzten ikasleei erantzun egokia ematea,... Hauei eta beste askori ere erantzuna eman behar die gure ikastolak, eta sarri askotan ez da zeregin samurra...

15 urte betetzeak zer esanahi dauka Armentia Ikastolarentzat?

Herri honetan ospakizunetarako joera dugu, baina merezi zuela ere uste dugu. 15 urteak ospatu eta hurrengo urteetarako indarrak hartzeko asmoa dugu, bai gure ikastolaren barruan eskainiko ditugun hainbat jarduerarekin, bai hiriko eta gizarteko eragilean aurrean egiteko pentsatuta ditugunekin.

Egitarau oparoa antolatu duzue XV. urtemuga ospatzeko...

Publiko guztietara heltzeko asmoa izan dugu, txotxongiloak txikienentzat, Jon Maiaren 'Apaizac Obeto' emanaldia edo bertso tramak gazte eta helduentzat. Azpimarratuko nuke Ikastolaren historia jasoko duen liburua ere moldatuko dugula azken 15 urteotako ibilbidea azalduta. Irailean beronen aurkezpena egiteko asmoa dugu, Principal antzokian, eta ekitaldi gogoangarria antolatzen ari gara egun horretarako■



UDAKO MODA

UDA SASOIA IRITSI DA, ETA ARMAIRUKO TRAPUAK BERRITZEKO GARAIA ERE BAI. EROSKETAK EGITEKO ASMOZ BAZABILTZA, IRAKURRI GOMENDIO HAUEK. IN ETA OUT EGITEAREN ARTEKO ALDEA.



Legginak, oraindik eramangarri laz izugarritzko indarrarekin sartu ziren gu-rean *legginak*, eta uda honetan gutxiago ikusiko ditugun arren, oraindik ere iazkoak armairutik atera ditzakezu eta lasai-lasai erabili. Iazkoak zaharkituak baldin badituzu, ez kezkatu, aurten dendetan ere topatuko dituzu, makina bat motatakoak gainera. Metal kolorekoak indartsu omen datoz, horretara ausartzen direnentzat, behintzat.

Soineko-kamisetak

Uda honetan neskentzat kamiseta erosoak izango dira nagusi. Kamiseta zabalak, eta, batez ere, luzeak, ipurdia estaltzen duten horietakoak, soineko moduko kamisetak, alegia. Horrelako kamisetak, gainera, soineko bezala ere erabil daitezke azpitik *leggin* polit batzuk jarrita. Beraz, oso praktikoak eta eraman errazak.



Betaurreko handiak

Arropaz gain, osagarriak ere garrantzitsuak dira, eta horregatik hemen dituzu pare bat aholku. Eguzkia berotzen hasi da, eta eguzkitako betaurrekoetan pentsatzeko ordua da. Aurten ere betaurreko handiak ikusiko ditugu kalean, bai neskentzat bai mutilentzat. Betaurrekoen besoak nahiko zaindu dituzte disenatzailerek, eta mota askotakoak aurkituko dituzu dendetan, diseinu berezietakoak gehientsuenak.



Eskeleto ordulariak

Mutilen artean eskeleto motako ordulariak daude modan, hau da, barruko tripak erakusten dituzten horietakoak. Koloreei dagokienez, koloretsuak izango dira nagusi.

Nesken kasuan ere erloju koloretsuak daude modan, baina eskeleto itxurakoak baino, larruz edo hobe larru itxurako materialez egindakoak. Mutil zein nesken kasuan erloju analogikoak ikusiko ditugu.



KAKA GOGORTZAILEA

Lau hanketa-ko laguntxoaren opariak jasotzeak nazka ematen badizu, hona hemen bizitza



erraztuko dizun asmakizuna: kaka gogortzailea! Poop-Freeze izena du produktuak eta oso erraza da erabiltzen: mokordoari spray pittin bat bota, eta berehala hoztu eta gogortu egingo da. Hartara, errazagoa da biltzea. Gainera, kaka usaina ere kentzen omen du. Asmakizun garrantzitsu eta iraultzaile hau www.poop-freeze.com web orrialdean eskura daiteke.

BANANA-BABESLEA

Hamaiketako gisa hartzeko, oso fruitu egokia da banana. Baina zer gertatzen da banana oso handia denean, eta bi hamaiketako egiteko ematen digunean? Non gorde dezakegu beste banana erdia? Hona hemen banana-jale

guztiekin behar duten osagarria: Banana Holder babeslea. www.taylor-gifts.com.



BIZIKLETARI ITSATSITA

Datuen arabera, Johannesburg (Hegoafrika) munduko hiririk arriskutsuenetako bat da. Eta ez da barre egiteko kontua, gero; bertako lapur batzuek, behintzat, torturatzaile joera dute argia dute eta. Duela gutxi, kasu gogor baten berri izan du poliziak: etxean sartu ondoren, lapurrek etxeko jabea bizikletari itsatsita utzi zuten kola indartsua baliatuta. Ezpainak ere erantsi zizkieten eta, oihukatu ezinean, hiru ordu eman zituen bizikleta gainean emaztea etxera bueltatu arte.



EZIN ZIEGA IREKI



Alemaniko Zwiesel hirian, gazte batek uste baino luzeago egon behar izan zuen komisariako ziegan. Gaztea zirkulazio-kodea ez errespetatzeagatik atxilotu zuten, baina poliziak aske utzi behar zuenean, ziegako sarraila apurtu egin zen eta ordu batzuk eman behar izan zituen giltzapean, sarraillagilea iritsi eta atea ireki arte.

**gaztezulo flash zure e-mailean
doan jaso nahi duzu?**

Bidali e-maila eta zure izen-abizenak gaztezulo@gaztezulo.com helbidera

**Hamabostean behin
informazioa eskura**

15/1999 lege organikoen arabera, harpidedunak gaztezulo-ri emandako datuak Datuen Babeserako Agentzian inskribaturik dagoen fitxategi automatizatu batera igaroko dira, datuen kudeaketa hobea bermatzeko eta harpidedunak gaztezulo-ren jardura eta zerbitzuak buruzko informazioa jaso dezan. Datu lagatzaileak, politikiak, irizpideak, zuzenketak, ezarpenak eta aurkaritza eskubidea, arauak ezartzen duenari jarraituz, Katalina Eleizegi 36, behea, 20009 Donostia helbidean, idota helbide elektronikoa honetan: harpidetza@gaztezulo.com

ARANTZA OIARBIDE

53 urte bete berri ditu Beasainen jaio baina Agurainera orain dela hiru hamarkada iritsitako Arantxak. Etxean ikasi zuen euskara hain zapaldua zegoen garaietan eta oso gazte joan zen begirale gisa euskara bultzatzeko udalekuetara. Aguraingo ikastolako sorkuntzan parte hartu zuenetako bat izan zen beste askorekin batera, eta oraindik ere bertan jarraitzen du euskararen aldeko lanean.

t. josune garcia de bikuña a. edorta sanz

Zerk ekarri zituen Agurainera?

Ikasle nintzela irakaskuntza euskalduna bultzatzeko gai izan nahi nuen, orduan, majisteritza bukatutakoan Agurainen, Araian... oraindik oinarritzko hezkuntzarik ez zegoela ikusita, nire ilusioa hemen lehen urrats horiek ematea zen.

Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Euskara maitatzea eta erabileraren erronkak geroz eta gehiago ateratzen nau nire onetik momentu askotan.

Liburu bat?

Munduaren inguruan, 'Ebano' adibidez, Afrikari buruz hitz egiten digu beste kultura batzuk ezagutzeko aukera emanez. Eta euskaldun-euskalduna eta barruraino sartu zitzaidana, Sarrionandiaren 'Gizon izoztua'.

Abesti bat?

Oso zaila egiten zait. Mikel Laboa eta Benito Lertxundi beti barne-barnean izan ditut eta oraindik ere Mikel Laboaren 'Hegoak ebaki banizkio' Donostiako Orfeoiaekin entzuten dudanean...

Oporrak non?

Leku askotara baina duela gutxi Saharan izan naiz, errefuxiatuen kanpamentuetan, eta "chapeau". Kultura guztiak dira daukagun herentzia eta desagertuz joaten diren heinean asko galduko du mundu honek.

ASKO DAUKAGU IKASTEKO EGITEKO ERAN, BENETAN SINESTEKO HEMEN DAUKAGUN BORROKA ETORKIZUNEAN LORTU BEHARREKO ZERBAIT DELA, ETA LORDEZAKEGULA ETA ILUSIOAK PIZTU BEHAR DITUGULA.

Nora ez zinateke joango?

Benidorm-era edo jende asko dagoen lekura. Udan kostalde horietara inoiz ez.

Kirolzalea zara?

Askok, kar-kar. Ni oso urduria naiz eta asko hunkitzen naiz edozein gauzarekin, eta behar dut nire barnea pixka bat baretu, adrenalina bota. Beti nago lotuta nire bizikletari.

Zer da Agurainek duen onena?

Niretzat dena da oso ona, ikaragarri gustatzen zait Agurain eta gehienbat ingurua. Izugarritzko kalitate maila dugu. Munduan oso zaila da hain dentsitate gutxiko lurralde batean halako mendiak aurkitzea, eta mantentzen saiatu behar gara nahiz eta suntsitu nahi duten.

Eta txarrena?

Zaila egiten zait. Nahiago dut ikuspegi baikor batetik hobetzeko bideak bilatu.

Arabako lekurik politena?

Une honetan Aldan errota batzuk kokatu nahi dituzte eta Arnaba mendira joaten bazara zoragarria da paisaia, zoragarria dagoen isiltasuna, eta dagoen espazioa, naturarekin harremanetan egoteko.

Euskaraz bizi al daiteke Agurainen?

Ez, ez eta ez. Horrek asko tristetzen nau. Nola ikusten duzu euskararen etorkizuna? Oso beltza. Nahi dut argiago ikusi baina hainbeste esfortzu egiten ari dira pertsona asko... ■

OSO HUNKIGARRIA EGITEN ZAIT ADIBIDEZ JOSUNE, NIRE IKASLE OHIAK GAUR EGUN GEURAKO HORRELAKO ELKARRIZKETA BAT EGITEA, HORREK HUNKITZEN NAU IKARAGARRI, NEGARGURA SARTZEN ZAIT.



Euskararen etorkizunaz

"Uste dut hizkuntzak, kulturak, esfortzuak, ez bakanak, baizik eta komunak izan behar direla, gizartean sortuak eta taldean. Erresistentzia hitza jartzen diot nik euskarari. Suntsiketak egun batetik bestera egiten dira, herriak suntsitzen dira, kulturak suntsitzen dira,... Hemen ezagutza bat dago baina ez badugu ziurtatzen hurrengo pausoa, ez badugu benetan apustu ikaragarri garbia egiten, ez diot etorkizun handirik ikusten. Baina erresistentzian jarraituko dugu eta gutxi bagara ere beti egongo gara eta hori ere pozgarria da".

Bere onetik ateratzen duena

"Ikustea geroz eta gazte gehiago daudela euskara ezagutzen dutenak, haur guztiek ezagutzen dutela euskara, eta dauden aukera guztiekin gero euskarari hain espazio murrizta uztea...; eta inguruan dauden guraso horiek, kontziente direla esaten dutenak... Batzuetan 6. mailakoekin oihu batzuk egin eta gero, lasaitzean esaten diet: barkatu baina ezin dut jasan daukagun espazio txikienean ere, gela barruan, ikastetxe barruan, euskarari errespetu minimo hori ez izatea".



IPARRALDETIK GASTEIZA

Gainean daukagu jada BATEKMILA. EUSKAL MUNDUAK erakusketaren egitarau paraleloaren seigarren ekintza osagarria. Amama Luisa Brass Bandaren kalejira, Munduari Mundo dokumentalari buruzko hitzaldi multimedia, La Tadrart ikus-entzunezkoa, Arabako Euskal Hotsak-Antecedentes del Euskera en Álava hitzaldi multimedia, Maixaren kontzertua..., guztiak GEU aldizkariak&elkarteak eta Arabako Foru Aldundiak lankidetzan antolatutakoak. Eta zein den gasteiztarrok euskaraz disfrutatzeko izango dugun hurrengo kultur ekitaldia? Iparraldetik zuzenean datozen bi talderen kontzertua izango dugu **ekainaren 13an**. Maialen Errotabehere bakarlariak (Jazz, folk, blues-a. Baiona) eta Kiki Bordatxo musika taldeak (Eskusoinua, arrabita, ttunttuna eta tuba. Lapurdi) **Gasteizko Aihotz (Matxete) plaza** Iparraldeko soinuez girotuko digute, 21:00etatik aurrera.

KIKI BORDATXO



MAIALEN ERROTABEHERE



MAIALEN ERROTABEHERE:

“Presa dut zuei aurkeztean kantatzen dudan errepertorioa”

ainhoa arriaga

Emanaldi honen aurrerapen txiki gisa, Maialen Errotabehere abeslaria pixka bat gertuagotik ezagutzeko aukera izango dugu honakoan. Nahiko lanpetuta dabilen, gustura artatu gaitu.

Zortzi urterekin hasi zuen Maialen Errotabehere abeslariak bere musikari ibilbidea. Ezpeleta Abesbatzan hasi zen kantari, eta gaur egunera arte musika izan da bere motor nagusia. ‘Askatasunen ibaia’ da bere bigarren diskoaren izena, jazz, folk eta blues estiloko hamabi kantuz osatutako lana. Lan borobila da, sentimenduz beterikoa eta abeslariaren gaztetasuna agerian uzten duena. Indarra, amodioa, gaur eguna, amesgaiztoa, sexua, bidegabekeria, sentimendua... Askatasunaren ibaia.

Nora garamatza ‘Askatasunen ibaia’?

Konturatu naiz nire kantu guztiek zutela askatasunarekin zerbait ikusirik, edozein manieraz. Niretzat oso garrantzitsua baita bizian eta buruan libre izatea. Eta beraz ‘Askatasunen ibaia’ hautatua dut kantu baten titulua delakoz ere bai.

Zortzi urterekin hasi zinen kantatzen. Egun oso gaztea izanik, bi disko dituzu kalean eta musikaz bizitzeko ahaleginetan zabilta. Zer behar du euskal kantari batek musikaz bizitzeko?

Duela bost hilabete lana utzia dudala musikaz bizitzeko edo bederen entseatzeko. Nahi nuen zinez osoki bizitu garai hori, gaztea naitzelako. Hortaz bizitzeko ez dakit sobera zer egin behar den, egiten dut momentuko nahi dudana. Musika eta kantua. Gero ikusiko dut

zer emanen duen istorio horrek. Ez naiz kezkatzen. Ez du balio. Profitatzen dut *a tope!* Besterik ez.

Taldean aritu zara maiz, suposatzen dut bakarlari aritzearekin desberdintasun handiak egongo direla...

Bai, egia da. Alta, bi lan horiek bikainak dira eta oso interesgarriak. Beti ikasten duzu besteekin izateaz. Talde batekin, beste musika kideekin, gauzak antolatzen eta ikertzen dituzu. Bakarlari gisa, zuhaurrek hautuak egiten dituzu, zure bide propioa eta pertsonalagoa handitzen duzu. Eta azken hori zaila da baina hain ona zure nortasuna garatzeko.

Aitak idatzi ditu zure diskoetako abesti asko, baina gutxika-gutxika animatzen ari zara zure kantu propioak idazten. Zer dakarkizu zuk idatzitako zerbait

dalvez

maketazioa l inprimatze-lanak l diseinua

info@dalvez.com 652 776509

abesteak? Nondik datorkizu idazterako orduan inspirazioa?

Biziki maite ditut aitaren testuak. Ikusten dut gero eta gehiago ongi ezagutzen nauela. Eta hori alaba batentzat oso ona da, ezta? Ainitz gauzak idazten ditut. Baina momentuko, ez ditut nik egindako testu guztiak kantatu nahi. Pixkanaka horretarat abiatzen naiz eta beharrik. Egia ere bada aitarekin biok idazten dugula. Inspirazioa nik bizi ditudan gauzetan hartzen dut; pertsonalki hori da zailena, onena ere bai. Pixka bat konplikatu da istorio hori, ezta? Nire buruan hala da, uste dut!!!

Nolakoak dira Maialen Errotabehereren zuzenekoak?

Goxoak, giro intimista eta alaia. Konplizitatek betea nire musika laguntzaileekin.

Hegoaldeko eta Iparraldeko publikoaren artean desberdintasunik nabari duzu?

Ez, sekulan. Publikoa edozein lekuan hartu behar da. Ez dut sekulan desberdintasunik egiten. Publikoa, nortasunak dira, gustu desberdinekin. Bizian bezala.

Hegotik Iparrerako muga mentalitateetan dagoela esan duzu noizbait. Izan duzu Hegoaldean kantatzeko zailtasunik?

Bai, hori erraiten dut. Muga gure buruetan dela. Zailtasunak badituzte, egia da, Hegoaldera joateko. Baina aldatuko da beharbada zuei esker??!!

Azken disko honek, aurrekoa baino pertsonalagoa dela ematen du, helduagoa

akaso? Zeintzuk aldaketa sumatuko ditu entzuleak aurreko diskotik honetara?

Asumitzen ditut orain, lehen baino gehiago, nire gustu propioak: Blues, jazz, gospel estilo horiek gehiago sentitzen dira azken diskoan. Pertsonalagoa, beraz, iruditzen zait bai azken lana. Lehen diskoan, koroan ikasi ditudan gauzak ainitz sentitzen dira. Hor dago, uste dut, aldaketa handiena.

Bero Ero kantak sexuaz dihardu, gordinki eta konplexurik gabe. Askotan esan izan da euskarak ez duela balio sexuaz hitz egiteko...

Gaztea naiz, sexua dut bizitzen eta argiki adierazten. Hitzak ditugu euskaraz sexua aipatzeko, zergatik ez baliatu??

Zeintzuk dituzu etorkizunerako erronkak?

Kontzertu ainitz, beste disko bat, eta noski, zoriona!

Ekainaren 13an Gasteizko Matxete plazan izango zaitugu, Gasteizko tokirik xarmangarrienetakoan...

Beti pozik naiz kantatzen dudalarik. Beraz, presa dut zuei aurkeztea kantatzen dudan errepertorioa ■

di-da

- Taldea bat? *Joan Baez, Janis Joplin.*
- Abestirik gustukoena? *Amazing grace.*
- Idazle bat? *Erran nuke poeta bat: Xabier Lere.*
- Euskal Herriko txoko bat? *Etxea.*
- Herriko plaza edo aretoa? *Edozein lekua kantatzen ahal bada!*
- Musika entzuteko eguneko momentu bat? *Gaua.*

Iturrieta



bertako sagardoa



ekainaren erdialdetik aurrera hasierako jabeekin berriro

Sagardotegia



ITURRIETA BASERRIA - ARAMAIO (ARABA) Tl.: 945 445 385 - 685721593

Zer da Mintza Eguna?

TOPAGUNEA Euskara Elkartearen Federazioak antolatutako jaia da. Euskara Elkarteek herrietako euskaltegiekin eta euskalgintzako beste zenbait eragilerekin kudeatzen dituzten mintzapraktika egitasmoetan parte hartzen duten berbalagun, mintzakide, mintzalagun, solaskide guztiek elkar ezagutu eta egun pasa ederra egiteko parada dute bertan.

Aurtengo edizioa, hirugarrena, ekainaren 14an izango da, Getxon (Bizkaian). Mintzapraktika mugimenduaren tamaina ezagutzera emateaz gain, ikasturteari bukaera goxoa ere eskainiko dio hirugarren Mintza Egunak.

t. / a. topagunea

Mintzapraktika egitasmoak

Gero eta jende gehiagok daki euskaraz, hizkuntzaren ezagutza gero eta arinago zabalduz doa. Erabilera, aitzitik, ez da neurri berean hazten. Jende askoren **harreman sareak** erdaldunak dira, eta horrek zaildu egiten du euskara jakitetik euskaraz aritzerako jauzia ematea. Jauzi horretan laguntzeko, **mintzapraktika egitasmoak** daude abian hainbat herritan: bospasei lagunek osatutako talde txikiak osatzen dira, eta horietan euskaraz naturaltasunez moldatzen diren lagunak haien jariora landu nahi dutenekin elkartzen dira. Taldeok maiztasun jakin batekin biltzen dira (astean behin, gehienetan), euskaraz mintzatzeko, eta, tarteka-tarteka, ekintza osagarriak ere antolatzen dituzte, taldekideen gustuen arabera. Talde horiek guztiek topaleku birtuala dute interneten, www.mintzapraktika.org webgunean, bai eta 'erreala' ere, urtero egiten den Mintza Egunean. Horrela, euskarazko harreman sareak sortu eta zabaldu egiten dira, eta euskaraz aritzeko aukerak ere neurri berean ugartzen dira. Gainera, ingurune euskaldunak sortzen dira herrietan, eta euskalduntze prozesua bukatzen ari diren ikasleei komunitatean integratzeko aukera eskaintzen zaie. Ikasleak aipatu ditugu, bai; baina mintzapraktika egitasmoak askoz ere publiko zabalago batengana zuzentzen dira:

- euskaraz hitz egiteko ohitura dutenengana
- euskaraz ongi jakin arren, norekin hitz egin ez dutenengana
- euskaraz ongi jakin arren, euskarazko harreman sareak zabalitzen eta inguru euskaldunak sortzen lagundu nahi dutenengana
- euskalduntze prozesua bukatzen ari direnengana.



Datu batzuk

Lurraldea	Gunea	Lagun kopurua
Araba	Gasteiz, Arabar Errioxa, Aiaraldea	418
Bizkaia	24 herri eta hiritan	1039
Gipuzkoan	16 herri eta hiritan	758
Nafarroan	Iruñerria, Sakana, Bortziriak	252
Osotara	48 gunetan	2467

Mintzapraktika egitasmoak Euskal Herriko 48 herri eta eskualdetan gauzatzen dira:

- Dimentsiorik handiena dutenak hiri inguruan ematen dira (Iruñerriko, Donostiako, Bilboko eta Gasteizko egitasmoetan berrehuna lagun biltzen dira).
- Egitasmoari esateko zenbait izen erabiltzen da: Berbalaguna, Mintzalaguna, Mintzakide, Solaskide, Zahar-Berri...

Zertarako Mintza Eguna?

Mota biko helburuak betetzen ditu Mintza Eguna: alde batetik, mintzapraktika mugimendurekin lotutako helburuak daude: mintzapraktika egitasmoen tamaina eta zabalkundea eman nahi dugu ezagutzera. Horrela, tokian tokiko egitasmoetan parte hartzen dutenek mugimendu bateratu baten kide direla ikusi eta sentitzeko aukera izango dute, batetik, eta bestetik, hazia erein nahi dugu oraindik halako egitasmorik ez duten herrietan mintzapraktika programak zabal daitezen animatzeko. Bestetik, mintzapraktikak duen aisialdiko alde ludikoa ere azpimarratu nahi dugu: mintzalagunak, mintzakideak, solaskideak eta berbalagunak elkar ezagutzeko aukera paregabea da Mintza Eguna, ikasturteari bukaera goxoa eskaintzeko modu bat, txango eta bazkariaren bitartez. Bide batez, Getxo inguruko txoko eta pasadizoak euskaraz ezagutzeko aukera ere izango dute Mintza Egunera datozenek.

Mugimenduen historia

- **1993:** Bagera Euskara Elkartek Donostian lehendabiziko Mintzalaguna sortu zuen.

- **1996:** Egitasmoa Euskal Herrian zabaltzen hasi zen: Lasarte-Oria, Arrasate, Getxo...

- **1998:** Lehenengoz, topaketak antolatu zituzten eta Mintzapraktika batzordearen martxan jarri zuten.

- **2005:** TOPAGUNEAK proiektua martxan jartzeko metodologia jasoko duen esku-liburua argitaratu zuen.

- **2006:** Mintzapraktika programen inguruko estreinako jardunaldiak antolatu zituzten Durangon TOPAGUNEAK, IKAK eta AEK-k. Guztira, 110 bat lagunek parte hartu zuen. Aurkeztutako txostenak Mintzapraktika egitasmoak: erabilera lantzeko tresna eraginkorrak CDan argitaratu zituzten.

- **2006:** Lehendabiziko Mintza eguna antolatu zen Iruñerrian

- **2007:** www.mintzapraktika.org webgunea sortu zen, mintzapraktika talde guztien erreferente izateko eta mintzapraktika birtuala egiteko aukera eskaintzeko asmoz.

Talde berririk sortu nahi?

Mintzapraktika programek herriz herriko euskalgintzaren elkarlana antolatzeko aukera paregabea eskaintzen dute. Hiru zutabe nagusi dituzte: tokiko Euskara Elkartek, tokiko euskaltegiak eta tokiko Administrazioa. Topaguneak laguntza eskaintzen du mintzapraktika egitasmo berriak sortzeko. Horretarako, Topagunearen Mintzapraktika Sailaren ardura duen Oskar Zapatarengana jotzea da biderik zuzenena, telefonoz (618 615 277 / 948 132 693) zein posta elektronikoz (mintzapraktika@topagunea.com).

Ekainaren 14a

Esan dugun bezalaxe, Mintza Egunaren hirugarren edizioa Getxon egingo dugu, ekainaren 14an, larunbata. Egun pasa ederra, Bizkaiko herri eder horretako txokoak eta historia hobeto ezagutzeko, eta mingainak dantzan ere jartzeko aukera izango dute bertaratzen direnek. Hona hemen egitarau zehatza:

11:00 - Ongi etorria Portu zaharreko orubean: bertsolariak, dantzariak, txalapartariak, suziriak eta gosaritxoak.


11:30 - Ibilaldi gidatua Xabi Païaren laguntzaz: Portu Zaharra, Usategi, Kasinoa...

13:30 - Kalejira

14:30 - Bazkaria Santa Eugenia plazan (Erromon)

Bazkalostean: Sari banaketa. Bazkalosteko giroa aprobetxatuko dugu mintzapraktika egitasmoen bilakaeran parte hartze eta garrantzia berezia izan duten zenbait erakunde eta laguni eskerrak eman eta opari xume bat ere egiteko.

Ondoren, jakina, kantuan, dantzan eta, nola ez, mintzapraktikan ere aritzeko aukera egongo da, Patxi Perezen taldeak gidatutako erromerian.



GORETTI
ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (Korre), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tl: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ

LA RIOJANA
on egin!!! jatetxea

bokatak,
pintxoak, kazuelatxoak
Aiztogile kalea (Kutxi), 33
tfnoa. 945 25 02 39

Zure denda erotikoa

SEX **PITILIN GORRI**

Sexua euskaraz bizi

GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60
DONOSTIA OIARTZUN

DIBUtec
Paper Bereziak
Arte Ederretarako Materiala
Ink let original eta birzikletuak
Bulego Materiala
Enkudernazioak
Plastifikazioak
Kopiak
Kamiseten Estrampotak

azkarprint
Inprimatua / Inprimategia
Edozein inprimaketara
mota.

* PAPERTEGI TEKNIKO * Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ INPRIMATEGIA

Eramun
Argazki - Estudioa

Heraclio Fournier, 23
(laborategia)
945 13 71 02

Askatasun kalea, 5
945 26 19 91

Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldian plaza
GASTEIZ

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta erosotasuna
zure esku"

El Clarete
jatetxea

unai eta patxi fdr. de retana


zerkabarren kalea, 18
gasteiz 945 263 874

KIDE
APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

ANDONI ARENAZA,
'KRISTAUTASUNARI AZTERKETA KRITIKO BAT' LIBURUAREN EGILEA:

***“Eliza Katolikoa poterean egon denean
zer egiteko gai izan den erakutsi nahi
izan dut liburu honen bitartez”***



“Darwin hor egon arren,
Biblia izan dugu betiere
oinarri, mundua Jainkoak
sei egunetan egin zuela
dioena, alegia”.

Munduaren sorreraren
inguruko jakin-mina izan
du betidanik Andoni
Arenaza Albizuak.

Historia eta Geografian
lizentziatua eta Bilboko
Urretxindorra Ikastolako
filosofia irakaslea izanik,
Kristautasunak

historikoki defendatu
dituen egia absolutuen
nondik norakoak

aztertzeraz ekin zion
azkenik. Azken urteetan
hainbat datu bildu

ostean ‘Kristautasunari
azterketa kritiko bat’
liburua (Gaiak, 2007)

kaleratu du Andoni
Arenazak.

t. josune velez de mendizabal
a. edorta sanz

Zure lehen liburua den honetan zergatik aukeratu duzu kristautasunaren gaia?

Alde batetik, betidanik izan dudalako interesa gai honekin, ez fededuna naizelako baizik eta esaten direnak aztertzeko; eta bestetik, erlijioak Euskal Herrian eta gure historian izan duen eraginagatik. Oso oinarritzko galderatik abiatu naiz. Izan ere, erlijio honek defendatzen dituelako zenbait egia absolutu, eta betidanik jakin nahi izan dudalako zertan oinarritzen diren hauek esaten dutena esateko.

Saiakera dugu 'Kristautasunari azterketak kritiko bat' liburuaren generoa. Erlijio honen alde edo kontra egin duzu bertan?

Ez da nire helburua inor ezertaz konbentzitzea. Kristautasunak dituen dogma absolutuak eta balizko egia hartuta, non dagoen egia horien oinarria da nik bilatu nahi izan dudana. Horregatik egin dudana izan da aztertu bereziki ildo horiek eta horiek ezagutu ahala konturatzen zara zenbat faltsifikazio dauden, zenbat gezur...

Biblia izan duzu, besteak beste, liburu hau idazteko orduan oinarri?

Atal pare batean bai, behintzat.

Biblia osoa irakurri al duzu?

Oso-osorik ez, baina zenbait pasarte bai, adibidez, munduaren sorrera edo Jesusen bizitzaren hainbat pasarte. Erlijio katolikoaren kasuan, Estatu espainolean XVIII. mendera arte ez zuten baimenik eman Biblia gaztelaniaz itzultzeko. Bakarrik irakurri ahal zutela latinez zekitenek. Are gehiago, Trentoko Kontzilioan heriotza-zigorra zen Biblia hizkuntzetara itzultzea. Zer ulertu behar dugu honetaz? XVIII. mendera arte Eliza, Biblia zen Jainkoaren hitza interpretatzeko poterea zuen organo bakarra zela.


Behin ilustrazioa ematen hasten dela, zenbait ikasle irakurtzen hasi eta kontraesanekin topo egiten dutenera arte. Hor dago Elizak betidanik izan duen beldur hori, "guk bakarrik dakigu hau nola interpretatu", alegia. Momentu batean elurrezko bola hori gelditzea ezinezkoa izan zen era arte.

Beldurra aipatu duzu, bai Elizak pote-

rea galtzekoa bai sinesdunek zeukatena Elizaren aginduei kasu egitekoa. Ezinbestez eragiten zuen beldurra fededunengan?

Erdi Arotik XVIII. mendera arte sinestea munduko gauzarik logikoena zen. Erlijioa zen jendeak zuen kultura bakarra. Erlijioak agintzen zuen bai kultura bai moralean ere. Horrela izan zen ilustrazio garaia iritsi arte.

"ELIZA KRISTAUAREN POLIZIA SEKRETUA ZEN INKISIZIOA"



"ERLIJIO HONEK DEFENDATZEN DITUELAKO ZENBAIT EGIA ABSOLUTU ETA BETIDANIK JAKIN NAHI IZAN DUDALAKO ZERTAN OINARRITZEN DIREN HAUEK ESATEN DUTENA ESATEKO"

XVIII. mendera arte normaltzat hartzen da jendea kristaua izatea, baina hortik aurrera eta alfabetizazioarekin batera zer gertatzen da?

Garai klabea izan zen ilustrazioa. Hori baino lehen Espinosa filosofoaren adibidea dugu. Bi mende aurrerago Biblian agertzen ziren zenbait pasarteren hitzak Jainkoak idatziak ez zirela esan zuena, hain justu ere. Espinosa

juduek eta kristauek ere jarraitua izan zen. Baina, esan bezala, XVIII. mendean lehen agnostikoak eta ateoak sortzen direnean hor poliki-poliki Elizaren monopolioa puskatzen hasten da.

Inkiszioari ere erreparatzen diozu liburuan. Zer aipamen egiten duzu horren inguruan?

Eliza kristauaren polizia sekretua zen hau. Momentu batean European pentsalari libre mugimendua sortzen da, zenbait jende, historia, zientzia eta politikaren alde egiten duena, eta ondorioz Elizaren filosofiarekin talka egiten duena. Hortxe sortzen da Inkisizioa jende hori beldurtzeko. Hala ere, beldurra eta erlijio garbitasuna Inkisizioaren alderdi bat besterik ez dela pentsatu behar dugu; izan ere, Inkisizioak norbait atxilotzen zuenean bere ondasun guztiak lurraldeko gotzainarentzat hartzen baitzituen. Honen harira, XVIII. mendean, zenbaitzuek, baita erregeek ere, salaketak jartzen dituzte. Hala nola, Fernando II. Enperadoreak errieta egin zion nori eta Augsburgoko gotzainari gutuna bidaliz eta honakoa esanez: "zuek zer nahi duzue, fedearen garbitasuna edo jendearen negozioa?".

"BIBLIAREN IDEOLOGOA JESUS BAINOAGO PAULO IZAN ZEN; MISOGINO IKARAGARRIA ZEN HAU"

Eta sarraski horren galtzaile nagusia emakumea, noski.

Bai, Inkisizioak bereziki emakumeen kontra egin zuen. Bibliaren ideologia Jesus bainoago Paulo izan zen; misogino ikaragarria zen hau. Santu guztiak ere emakumearen kontra-koak ziren. Kontuan hartu Adan sortu eta Eva gizonaren saihesta batetik sortu zela ostean; hortaz, emakumea bigarren mailakoa zen. Gerora Evak eman zion sagarra Adani.

Ildo horretatik, nabarmendu behar da Pierre de Lancre inkisidoreak egindakoa. Honek XVI. mendean 60 emakume, Lapurdi eta Behenafarroa aldekoak, sutara bidali zituen. Eurretako asko umeak besterik ez zirela, 14 urterekin. Ondoren bere liburuan idatzi zituen argudioak honakoak izan ziren: argi zegoela emakume horiek sorginak zirela, izan ere, garai horietan Euskal Herrian gehien eda-



ten zena sagardoa zen; eta zerekin zegoen eginda? Sagarrarekin; eta zeinek eman zion sagarra Adani? Evak. Argudio hori nahiko izan zen 60 emakume sutara bidaltzeko!

Erljioak guda ere ekarri du bere historian zehar. Gaur egungo munduan ere eragina duena, hala nola, Israel eta Palestinaren artekoa, besteak beste.

Bai, hortxe Kurutzadak daude. Hala ere, erlijioaren mozorroan interes politikoak eta ekonomikoak ere ezkutatzen dira. Biblia-rekin batera irakurri nuen beste liburu bat da Ratzinger Aita Santuak idatziriko 'Dios y el mundo' liburua. Bertan, dagoeneko ezin du defendatu mundua sei egunetan egin zela, zientziak hori ezeztatu baitu; Israeli buruz galdetzen diotenean onartu egiten du, ordea, hori dela Herri Aukeratua. Bush-en jarrera ere hor dugu, metodista izan arren berak dio Jainkoak atera zuela alkoholismo-tik eta Jainkoak berak eman ziola Irak inbaiditzeko agindua...

Ezberdindu behar al da erlijioa eta Eliza?

Nire ustez bai. Lehen aipatu bezala, aurreko mendeetan sentimendu erlijiososak izatea munduko gauzarik logikoena zen, ia ezi-nezkoa zelako sinestuna ez izatea. Erljio-aren arazoa beraz, ez da pentsatzea zerbait egon behar dela -agian horiek sentimendu naturalak izan daitezkeelako-, arazoa da erlijio antolatuak sortzen direnean. Zergatik? "Hau horrela da Jainkoak esan duelako, eta

guk badakigu egia dela", pentsatzen delako eta horren arabera aritzen delako jendea gero.

"ARGI ZEGOELA EMAKUME HORIEK SORGINAK ZIRELA, IZAN ERE, GARAI HORIETAN EUSKAL HERRIAN GEHIEN EDATEN ZENA SAGARDOA ZEN; ETA ZEREKIN ZEGOEN EGINDA? SAGARRAREKIN; ETA ZEINEK EMAN ZION SAGARRA ADANI? EVAK. ARGUDIO HORI NAHIKO IZAN ZEN 60 EMAKUME SUTARA BIDALTZEKO!"

Erretzeari uzteko liburuak badago non-bait. Zure liburuak horrelako eraginik izango al du sinesdunen artean. Hau da, sinesteari uko egingo diote informazio hau eskuratzerakoan?

Sinesmenak dira norberaren barruan egoten direnak eta horiek nahiz eta kontrako gauzak irakurri zaila da kentzea, tradizio bat dago eta kulturala da, baina gutxienez kritikoak bazara ba jakingo duzu oso ondo Elizak zer esan duen. Ez dut bilatzen inor ezertaz konbentzitzea, esan bezala. Nik betidanik egin dizkiot galdera batzuk nire buruari eta azken finean ba galdera horiek argitu ditut, eta interesgarria izan dakioko jakin nahi duenarentzat. Gauza asko jakintzat eta egiaztat hartzen baitira eta jatorria ezagutzeko aukera ematen du liburu honek ■

“ Niretzat lan hau egiten lortu dudan daturik harrigarriena, hereseen aurkako sarraskiak izan zirenen artean, Valentzian 1826an toki izan zuena izan da. Hori historian atzo izan zen!: Eskola maisu kristau bat zegoen Ripoll abizenekoa eta bidaia egin zuen Parisera, non deistak ezagutu zituen. Hauek kristauak ziren baina ez zuten mirarrietan sinesten, Ama Birjina harremanik gabe haurdun geratu zela-eta. Deistek diote mundua dagoela Jaungoikoak egin zuelako eta hiltzean epaituko gaituztela. Handik urte pare batera itzuli zen Ripoll Parisetik. Maiatzean "Con flores a Maria" izeneko eskaintza egiten zen nonbait eta honek antza bere umeak ez zituen ekintza horretara eraman. Norbaitek salatu zuen bere jokaera "arraroa" eta ondorioz Inkisizioak epaiketa egin eta hiru egunetara urkatu egin zuten. Gorpua erre egin zuten. Akusazioak zer eta, kristau zintzoa ez zela zioen. Europa osoan Inkisizioak egin zuen azken hilketa izan zen hura. Eta ostean poliki-poliki desagertuz joan zen.

Gauzak horrela, Eliza Katolikoa poterean egon denean zer egiteko gai izan den erakutsi nahi izan dut liburu honen bitartez. ”

TREBINU SAGADOTEGIA

EGIN TXOTX!
SAGARDOTEGIKO MENUA
ASTEBURUTAN IREKITA. DEITU AURRETIK
Trebiñuko ASKARTZAN
945244852 / 657736599

ARANBIZKARRA

**ZURE
AUTOESKOLA!**
Valladolid kalea, 16
Tfnoa. 945 28 28 39
01002 GASTEIZ

Euskara, gure lurralde libre bakarra

araba@aralar.net • Kanpokale berria 4, behea • 945252631



PASARAI
TABERNA
Eguerditan, asteleneetik ostiralera
**JANTOKI
BEGETARIANO**
SAN FRANCISCO XABIERKOAREN KANTOLA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL: 945 27 68 33

ARTEPAN
aniztasuna, kalitatea eta zerbitzua
norbanako eta enpresen eskura
Jesus guridi, 2 - tl. 945 27 88 88
boulevard m.g. - tl. 945 06 88 88
vitoria-gasteiz - www.artepan.com

Udaberria
euskaltegia
• Euskaltegi Homologatua
• Helduentzat
• Ume eta gaztetxoentzat
• Musika eskola
• Dantza
Uruguai kalea, 9 - TI: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - TI: 945 22 34 33

ZURE HARATEGIAK

AIZPEOLEA
harategia
arraindegia
frutategia
okindegia

Florida Azoka 2 eta 3 TI. 945 13 24 48



**Jose Luis
GARMENDIA**
Harategia-urdaitegia
Andaluzia kalea 13
TI. 945 28 79 42
GASTEIZ

gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak

Obren egite
eta zuzentzea
ALTUNA Estudioa
"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa
Florida kalea, 9 behea - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30

UZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA
**KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA**
HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

Euskadik
behar zaitu



**ERROTA
HORTZ KLINIKA**
Julian de Apraiz kalea, 1 TI. 945 213 390 - Faxe: 945 213 390
01012 GASTEIZ
e-posta: errotadental@euskalnet.net

Errege atea, 9 - GASTEIZ
TI: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

MARRAZKIAK · KOADROAK
MOLDURAK LAMINAK
zurbeltz
Madalena kalea, 2 • TI: 945 13 27 20

*Confecciones
Pinedo
Jantziak*
San Antonio, 11 • TI. 945 23 39 90
H. Fournier, 15 • TI. 945 15 53 39

HEGOALDE
Euskaltegia
Matrikula zaitetz !!
Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

proposamenak

cd

'gainsbourg gainbegiratzuz'

askotarikoak
gaztelupeko hotsak-08
www.hotsak.com



2006an serge gainsbourg-en heriotzaren 15. urteurrena bete zenean, **juan carlos landa** -jocano- kantari donostiarrak gainsbourzaleak bildu nahi izan zituen kontzertu-omenaldia prestatzeko. ez zen nahiko denborarik izan gauzatzeko, baina egitasmoa baztertu gabe, proiektua handituz joan zen. "gainsbourg-en bertsioak entzunak nituen ingelesez, italieraz, gaztelerez (gutxi)... beraz, bagenuen euskaraz egiterik".?urte emankorra izan zen aurrekoa, itzulpen, egokitzapen eta grabaketa prozesuetan pasatutakoa. juan zulaika, ingeniari eta ekoizlearen aginduetara, hamabost abesti grabatu zituen lagun koadrila ederrak: **gari, mikel agirre** (la buena vida), **diego vasallo, estanis elorza** (natural project), **saioa, amaia intxausti, rafa berrio, txuma murugarren, urko menaio, enrique mingo, sanchis, giorgio bassmatti, jone gabarain...** eta ondorengo musikari hauek ere hartu dute parte: **aitor unanue, david soriazu, iñaki huarte, txeli, agus, joserra senperena eta javier sun.** 7 euro

liburua

'komikiaren oinarrizko gida'

mauro entrialgo
www.kreared.com



'komikiaren oinarrizko gidaliburua: zure istorioak hobetzeko trikimailuak eta aholkuak' mauro entrialgo komikigile gasteiztarrak gauzatu komiki gida dugu: hizkera argi eta errazean eta gazteenei zuzenduta, komiki diziplinaren arte-sorkuntza hobetzeko baliabideak biltzen ditu. euskaraz, gaztelerez eta ingelesez argitaratua. ia 10.000 ale banatuko dira ikastetxe, liburutegi, elkarte eta nazioarteko kultur zentroetan. era berean, bertsio digitala ere badago: www.kreared.com

zinema

'el rumor de la arena'

espainia 08?
zuzendariak: **jesus prieto, daniel iriarte?**
musika: **diego valbuena**



tindouf. fatma bere nebarekin elkartuko da 30 urteren buruan. marokok mendebaldeko sahara indarrez hartu zuenean banandu behar izan zuten, baina orain nberen hegaldi bati esker bisitan bueltatu ahal izango da. gatazkaren ikuspegi osatua. irtenbidea lortzeko gakoak proposatzen dituen. egileek dokumental independentetzat definitzen dute filma.

literatura dosi txikitan

POSTEATZEN

t. mikel ayerbe



Sareak bide berriak ireki zituen. Zinemarekin eta musikarekin zer gertatzen ari den badakigu. Eta laster esaldi hori ere lehenaldi burutuan formulatu beharko dugu, zinemarekin eta musikarekin zer gertatu zen kontatuz. Belar txarren moduan, sareak betiko bidezidorrak estali dituela ere esan beharko dugu.

Baina lasai, ni ez naiz eta teknologia berriak baztertzaren dituen *premoderno* horietako bat. Ezin dut izan. Ni ere *postmoderno* naizelako. Eta *postmoderno* izatea zer den galdetzen badidazue, neuk ere ez dut egoki erantzuten asmatuko. Baina *postmoderno* naizela berretsiko dut, bizi garen garaia *Postmodernitate* deitzen dioten neurrian. Beti egongo delako norbait bizi garen garaia etiketak eta izenak jartzeko, guk geuk ondokoari etiketak eta ezizenak jartzen dizkiogun bezala. Behin eta berriro ipini eta erortzen diren *post-itak* balira bezala.

Literatura, ordea, oraindik ez da sarean guztiz erori. Oraingoz, bide berriak betiko bidezidorrekin gurutzatu dira, eta bidegurutze horretan makina bat gauza berri lekutzen ari da. Hori bai, jadanik blogak eta antzerakoek, paperean argitaratzen ziren literatur aldizkariak lehia irabazi diete: merkeagoak dira, banaketa arazoak saihesten dira eta irakurleek erantzuteko aukera dute. Horren erakusle dugu, esate baterako, Volgako Batelariak literatur inoizkari elektronikoa.

Bertan pantailaratu den azken artikulua *Postindependentzia* du izenburutzat eta aro politiko berri baten *post-jaiotza* literarioa du hizpide. Ez naiz orain "pulpitukeria" eta "zilborris-mo" pertsonaletan sartuko, baina esango dut nire inguruan zeresan handia eman duela. Eta pare bat eztabaida eta elkarriketa interesgarri izateko, behintzat, balio izan didala. Eta ez da gutxi, hitz egitea ere garesti ordaintzen den garaia *postmodernootan* ■

BASTIDA ETA EUSKARA

t. kike fdz. de pinedo

Hil honen 15ean Bastidak hartuko du beste behin ere Araba Euskaraz-eko jaia. Bertako ikastolak 29 urte bete ditu osasunez, 200 ikasle izatera iritsi baita. Bertako eskola publikoan ere badira urte batzuk A utzi eta B eredura aldatu zirela. Datu pozgarriak inondik ere. Baina noiz galdu zen hemen orain berreskuratzen ari den euskara? Ez dakigu. Ez dugu froga idatzirik hizkuntz egoera zehazki argituko digunik. Orduan? Honen faltan, herri, leku eta pertsona izenentara (onomastika) joko dugu argibide bila. Bastidaren hegoaldean hasita, badakigu Erdi Aroan euskararen arrastoa Harotik Ezkaraiko mendietaraino erruz zabaltzen zela, *-uri* (villa) duten herri ugaritan ikusten den moduan: Athumauri, Zufihuri, Nafarruri... Iparraldean, mendiaren bestaldeko herriein hartueman estuak izan ditu (Toloño eta Goikogana mendi komunitateak). Jendarteko mugimenduak, migrazioak eta elkarrenganako eragina aspaldikoak dira, beraz. *Urizar* inguru horretan euskara XVII. edo XVIII. mendearen hastapenetan itzali zela ematen du. Bastida aldera helduz, euskararen aztarnak hiru bide hauetan antzeman daitezke:

1- X-XIII. MENDEETAKO HERRI EUSKALDUNAK

Mende hauetan hainbat herri txiki sortzen dira, eta gerora desagertuko diren arren, agiriei esker badakigu hauetako batzuek euskal izenak zituztela. Hauetatik *Herramelluri* (Herramel izenekoaren *uria*) da famatuena, izen bereko upeltegari esker. Bertan, orduko dolarea eta harrian egindako hilobi ikusgarriak ikus daitezke. Goraxeago Riparen (Rivas) eremuan beste hilobi batzuek *Doroño* herriaren kokapena erakusten digute. Izen hau Toloño izenaren euskal bilakaera fonetikoa zatekeen, R. Glz. de Viñasprek berriki iradoki digun moduan. Toloño jainko barduliarra zen, euren ote zen eremu hau? Bastidaren hegoaldean, berriz, *Muga* (San Andres de Muga), *Artasson* (gaur Artajona) eta *Mutiluri* (Mutil izenekoaren *uria*, Mendigurina ondoko San Martinen zegokeen).



harrian egindako hilobiak, herremelluri herria zenaren aztarnak

“HAU IKUSITA, 4 KILOMETRORA DAGOEN ORDUKO BASTIDAN EUSKARA BIZIRIK EGOTEA SINESGARRIENA DELA USTE DUT”

2- XIV. MENDEKO GOITIZENAK

XIV. mendean Nafarroan herriz herri zergak ordaintzeko erabilitako bi errolden zerrendak iritsi zaizkigu. Ez dugu Bastidako daturik, bai ordea, 1461 arte nafarrak izan ziren *Sonsierrako* Guardia eta San Vicentekoak. Zerrendetako abizenak finkatu gabe zeuden eta ez dira gutxi euskal goitzenekin izendatzen direnak. Datu hau esanguratsua da, euskal hiztunen agerpena aitortzen baitu. Izan ere, goitzenak, herrian zerabilten hizkuntzaren ispilu izatea dirudi logikoena. Hauexek dira San Vicenteko batzuk: *Ochoa*, *Balza*, *Gorria*, *Gacha*, *Belendo*, *Zurra*, *Yluna*... Hau ikusita, 4 kilometrora dagoen orduko Bastidan euskara bizirik egotea sinesgarriena dela uste dut.

3-EUSKAL TOPONIMIA

Oso goiz, XI. mendean, lehen euskal leku-izenak agertzen dira: *Miliharan*, *Cova Assuri*, *Bataran*. XVII. mende inguruko zerrenda polita bildu zuen Lz. de Gereñuk, erdia baino gehiago euskal toponimoak izanik. Batzuk denboraren poderioz desitxuratu badi-

ra ere. *Mendiate*, *Gobabaltza*, *Artebaltza*... -gaur egun Mondiate, Gobaltza, Tobaltza-, oraindik orain deigarria da euskal leku-izenen kopurua: *Iskorta* (eskorta -corralbat dago bertan), *Saigoba* (behinola koba eremitikoa), *Larrazuri*, *Izkarra*, *Jarrarte*, *Makarralde*... eta beste. Toponimo hauen euskara mota bat dator Araban ohikoa zen mendebaleko euskalkiarekin: uri, oste - *Mentoste*; elexa (eliza)-*Lejoste*; solo-*Solaguen*; ortua-*Ortondo*; baltza-*Gobabaltza*...


...AGIAN XV-XVII. MENDEEN BITARTE- AN GALDUTAKO HIZKUNTZAREN AZKEN ZANTZUAK

Jose Abalosek eta Gereñuk XX. mendearen erdialdean bastidarrei hauek bezalako hitzak jaso zizkieten euren eguneroko gaztelanian: *bochina*, *bizcarre* (espina-zo), *cil* (ombligo), *segundilla* (lagartija) edo *chinchin* (pajarito de las nieves)... Añian XV-XVII. mendeen bitartean galdutako hizkuntzaren azken zantzuk. Nork esango zuen 2008an euren ilobek arrasto hauei berriz ere bizitza emango zietenik!! ■

HENRIKE KNÖRR

Franco hil eta handik 3 urtera euskarazko nire lehen diskoa eskuratu nuen, Gorka Knörren 'Txalaparta'. Garai bertsuan hasi nintzen entzuten bere anaia Henrikeren izena, Arabako euskararekin lotuta. Euskara ikasten hasia nintzen eta gogoan dut poztu egin nintzela biak euskaldunberriak zirela jakin nuenean, eta hurbilago sentitu ere bai. Hizkuntza eta ondareko gaiak jorratu zituen, baina oso gustukoak zituen Arabako onomastikaren inguruko lanak eta artikulak azpimarratuko nituzke. Bere zuzendaritzapean Lz. de Gereñuren 'Voces alavesas' edo 'Toponimia alavesa' lan ordainezinak argitaratu zituen, eta oker ez banago, Gasteizko toponimia historikoa biltzen duen lana argitaratzear zuen. 1988an, Koldo Zuazorekin idatzitako 'Arabako euskara. Ikerketak eta testuak' liburu interesgarria ezin utzi aipatu gabe. Bere azken urratsak Iruña-Veleiako euskal grafittiekin lotzen ditut. Pozik eta emozionaturik ibili zen hasiera hartan, nola ez! Euskaltzain eta filologoaz gain, euskaltzalea zen oso. Eta honetan ari zela, euskararen aztarnekin berriro, joan zaigu betiko.

Ez adiorik!



HEZIKETA ZIKLOAK
zuretzat, gizartearentzat

Jesús obrero jesuitak

DBH / BATXILERGOA / LANBIDE
HASTAPENA / LANERAKO
PRESTAKUNTZA IRAUNKORRA

Ate irekiak

18:00 h.

astearte eta
ostegun guztietan

*Erdi eta goi
mailako zikloak*

> ESKOLAK EGUNEZ
ETA GAUEZ

Francia, 32. Vitoria - Gasteiz / tel. 945 000 333 / info@jesusobrero.org / www.jesusobrero.org



m. iñigo sarasola



zutabea

t. erlantz urtasun antzano.
historialaria



“Arabako herri izenak aldatu dira historian zehar?” (XXI)

Nik uste dut gaurko lehen “herria” nahikoa ezezaguna izanaren zaigula gehienoi. Hots, eta oker ez banago, denbora luze-luzez “Retuerto” deitu ohi zena, tartean “herri basamortu” bilakatuko zutena, alegia.

Horrela idatzi baitzuten jada XIII. mendean, baina 1589an, aukeran, “Riotuerto” nahiago izan zuten. Ez ahantzi 1706ko “Rituerto”, ezta XII. mendeko agiri batean azaltzen den “Veilez de Riotuerto” jauna, beharbada hangoa baitzen eta, hain zuzen ere, hau bailitzateke egun genukeen erreferentziarik, daturik zaharrena. Amaitzeko, aipatu beharra dago ibaiei loturiko erdarazko toki izenen artean nahikoa arrunta dugula balizko “Retuerto” hura.

Haatik, eta ur sakonetan murgiltzeko, beti etorri zait bururat gauza bat “Retuerto” honen inguruan, hots, euskal mendebaldeko Bizkaian badugula “Retuerto” ingurua ere bai, nahikoa ezaguna, urbanoa, Barakaldon kokatua. Eta, hainbat adituk dioenez, “erret-ortu” delakoan omen du azalpena, euskal ekialdean “Reparaz” abizenak “erret-baratza” anaia duen moduan. Auskalo, bai, baina... Zergatik ez? ■

“Arabako herri izenak aldatu dira historian zehar?” (XXII)

Bigarrenik erdarazko “Roitegui” herria dugu gonbidatu, hain zuzen ere Euskaltzaindiak “Roitegi” edota “Erroitegi” moduan onesten duena. Nik, ene aldetik, eta ene uste apalean, betiere, ez dut sobera ulertzen bikoizketa hau, baina tira...

Harirat, 1257. urtean “Rociegui” izena idatzi zuten, XV. mendeko agiri zaharretan “Reoteguy” bezala agertzeko. Hau da, ia-ia “Retegi” pilotariaren gisa, “erretegi” bat, alajaina!. Zorionez, eta afera korapilatuzko, XVI. mendean “Erroitigui” dugu, eta iritsi zaigun 1506ko abizen batean “Ruis de Herroitegui”; baina 1602. urtean, eta gauzak are gehiago ilun ditzagun, “Arroztegui” moduan isuri zuten. Beraz, auskalo!

Bon, eta aurrekoa guti balitz, berantago “Roytegui” eta “Roiti” izenez jantzirik jaso da. Euskaldunak bai, prefosta; eta izenaz, geroak erranen... ■

geusex@emaize.com


Argitu nahi duzun sexualitateari buruzko zalantzarik ala jakin-minik al duzu?

Hilerik hile zure galderak erantzungo dizkizugu. Sexualitatearen inguruko arlo desberdinei buruz galde diezagukezu.

Anima zaitetz eta bidali hona zure galderak:

geusex@emaize.com.

Emaize Sexologia Zentroko profesionalek erantzungo dizute.



emaize sexologia zentroa

gizon eta emakumeentzako arreta

bueno monreal I-behea / 01001 gasteiz / 945265896 / www.emaize.com

Aupa, 20 urteko mutil kezkatua naiz. Duela zazpi hilabete neskarekin utzi nuen eta ez nuen ligatzeko gogorik. Orain bai, eta neska askorekin saiatu naiz. Ia guztiek ezetz esaten didate.



Zenbat eta gehiago saiatu, ezetz entzuteko probabilitate altuago. Helburu bakarra dugunean, hori lortzea zaila egiten zaigu, bidean gertatzen diren gauzak ez ditugulako ikusten (begirada, gorputz jarrera, irribarrea... eta abar kontuan izan behar ditugu bestea prest egon daitekeen sumatzeko). Nola hurbiltzen zaren ere ikusi beharko zenuke, sedukzio jokoa garrantzitsua da, baina ez duzu "paper" bat jokatu behar. Zaren moduan azaldu zaitetz.

Helburua aldatu: ligatzera atera orde, jendea ezagutzen saiatu, presarik gabe eta batez ere ondo pasatzera atera. Ligatzea ez da txapelketa bat.

25 urte ditut, lau bikotearekin. Kondoia erabiltzen dugu eta beste antisorgailuren bat hartu nahi dut. Nire ustetan biok joan beharko ginatke informazio bila, bion artean erabaki... Berak nire erabakia dela uste du, ez matxismoagatik, baizik eta nire gorputza delako.

Haurdunaldia saihestea bion ardura da. Dirudie-nez zure mutilak zure erabakia errespetatuko du, bata zein bestea izan. Hala ere, zuretzat garrantzitsua da bera erabaki horren parte aktiboa izatea eta hori da ulertarazi beharko zenukeena: zuretzako onena aukeratuko duzula, baina berarekin erabakitzea konfiantza eta lasaitasuna ematen dizula, zuretzat pertsona oso garrantzitsua delako eta erabakitakoa bion erotikan eragin dezakeelako.



errezeta

OGI ETA MAHASPASA PUDING-A

diocesanar-mendizorrotza

ostalaritza eskola



Osagaiak:

- Litro bat esne
- 7 arrautza
- 175 gramo azukre
- Moldeko ogia
- Korinto-ko mahaspasak, 100 gr.

Elaborazio prozesua:

Lehenik eta behin, puding moldea karamelizatzea aholkatzen da, geroago desmoldazioa errazago egiteko. Ez bada karamelizatu nahi, moldearen hondoan koipetutako eta azukrez hautseztatutako paper bat jartzea da beste irtenbide bat, aipatu desmoldazioari arazorik gabe ekiteko.

Moldeko ogiarekin (azalik gabe) puding moldea betetzen da, ogi tarteetan mahaspasak sartuz. Ondoren flan-krema botatzen da, astiro, ogiak ongi xurga dezan. Crema egiteko lehenik eta behin esnea irakiten ipini behar da, gero sutatik kendu eta azukrearekin nahastutako arrautzak botatzen dira. Moldea goraino betetzen da eta maribainutan egosten da (flanak bezala, baina pixka bat denbora gehiago emanez, gutxi gorabehera ordubete).

Orratz batekin egostaldi puntua zehazten da. Hoztutakoan, moldetik ateratzen da eta gus-tukoa den saltsa batekin (fruituekin egindako-ren bat edo bestela ingeles saltsa bat) zerbitzatzen da ■



CUADRILLA DE ZUIA ZUIAKO KOADRILA

2008ko bisita gidatuak

Informazio turistikoa

Turismo Bulegoa Murgia Tel.: 945 43 04 40

www.cuadrillazuia.com



ARAMAIO



ARRAZUA-UBARRUNDIA



LEGUTIANO



URKABUSTAZ



ZICOTTIA



ZUIA

informazio gehiago
eta izena emateko:
945 24 38 28



Cuadrilla de Zuia-ko Koadrila



nekatur

902 13 00 31

Industria eta Merkataritza • Euskararen erabilera • Turismo • Kulturaren erabilera • Agintaritzaren erabilera



ARABARRI



FEDER

Fondo Europeo de Desarrollo Regional

Arabako Foru Aldundia



Diputación Foral de Álava

- I. Ibilbidea: Oroko Santutegia eta Olano
Larunbat arratsalde; eta igande goizez
- II. Ibilbidea: Izarra (Museo Etnografikoa) eta Goiuri
Larunbat arratsalde; eta igande goizez
- III. Ibilbidea: Aramaio: Ibarra, Barajuen eta Olatezar Gaztandegia
Larunbat arratsalde; eta igande goizez

Uztailaren 12an: Bisita Antzektua (II. Ibilbidea)

EKAINA							UZTAILA						
Al	Ar	Az	Og	Or	Lr	Ig	Al	Ar	Az	Og	Or	Lr	Ig
						1			1	2	3	4	5
2	3	4	5	6	7	8	7	8	9	10	11	12	13
9	10	11	12	13	14	15	14	15	16	17	18	19	20
16	17	18	19	20	21	22	21	22	23	24	25	26	27
23	24	25	26	27	28	29	28	29	30	31			
IRAILA							URRIA						
Al	Ar	Az	Og	Or	Lr	Ig	Al	Ar	Az	Og	Or	Lr	Ig
1	2	3	4	5	6	7			1	2	3	4	5
8	9	10	11	12	13	14	6	7	8	9	10	11	12
15	16	17	18	19	20	21	13	14	15	16	17	18	19
22	23	24	25	26	27	28	20	21	22	23	24	25	26
29	30						27	28	29	30	31		

Ibilbide bakoitzeko leku bakoitza bestetik independentea da, beraz, leku bakarrera joateko aukera dago (beti ibilbide bakoitzean zehaztutako ordutegian). Izena emateko deitzea beharrezkoa da, bisitaldia hasi baino ordubete lehenago deitzeko aukera ere badago. Taldeentzat aldeztutako aurretik zehazturiko bisitaldiak: bisita antolatutako deitu behar da. Talde horiek aurtengo bisitaldiak zein aurreko urteetan buruturiko bisitak ere egiteko aukera dago (urtegien ibilbidea, dorretxeen ibilbidea, ur-jauzien ibilbidea). Prezioak berdinak izango dira.

Talde batek hala eskatuz gero,
bisita euskeraz egiteko aukera dago.

ekainetik urria

Bai Euskarari Ziurtagiria gu ziur gaude

“profesionalak
garelako”
“lehiakorrangoak izan
nahi dugulako”

“jokaldirik onena
delako”
“elkar ulertzen
dugulako”

ziurtagiriaren elkartea



902 430026

baieuskarari.org


1.500 entitate baino gehiago

skunkfunk
people do funk



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

Sartu ate guztiak irekitzen dizkizun prestakuntzan



DIOCESANAS

EDUCACION SECUNDARIA Y FORMACION PROFESIONAL
BIGARREN HEZKUNTZA ETA LANBIDE HEZIKETA

BATXILERGOA L.H.ko ZIKLOAK

asteazken guztietan 18:00etatik aurrera
ARRIAGAn NIEVES CANOn
MOLINUEVOn eta MENDIZORROTZAn

jardunaldi irekiak

Aurre-inskripzioa egiteko
eparean aurreko asteetan



Diocesanasen Hezkuntz-Eskaintza 2008 - 2009 ikasturtea

	Derrigorrezko Hezkuntza		Derrigorrezkoaren ondoko Hezkuntza		
	D.B.H.	LANBIDE HASTAPENA	BATXILERGOA	ERDI MAILAKO L.H.ko HEZIKETA ZIKLOAK	GOI MAILAKO L.H.ko HEZIKETA ZIKLOAK
ARRIAGA	A, B eta D ereduetan	Soldadurako Langilea	Zientziak eta Teknologia Batxilergoa (A eta D ereduetan)	<ul style="list-style-type: none"> Makineria eta Linea-eroanbideen Instalazio eta Mantenimendu Elektromekanikoa Ibilgailuen Elektromekanika 	<ul style="list-style-type: none"> Informatika Aplikazioen Garapena E-G Informatika Sistemen Administrazioa Produktu Elektronikoen Garapena Automozioa Industri Ekipoen Mantenimendua Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak (Elektronika) Telekomunikabide eta Informatika Sistemak
MOLINUEVO		Merkataritza Laguntzailea	Giza eta Gizarte Zientzen Batxilergoa (A eta D ereduetan)	<ul style="list-style-type: none"> Administrazio Kudeaketa E-G Ile-Apalketa Erizaintzaren Laguntza G 	<ul style="list-style-type: none"> Administrazio eta Finantzak E-G Garraioaren Kudeaketa Merkataritza Kudeaketa eta Marketina G Estetika Gizarte Integrazioa
NIEVES CANO	A, B eta D ereduetan	Metal-arotzeriako langilea	Zientziak eta Teknologia Batxilergoa (A eta D ereduetan)	<ul style="list-style-type: none"> Mekanizazioa E-G Informatika Sistemen Ustiapena 	<ul style="list-style-type: none"> Mekanizazio Bidezko Produkzioa E-G Proiektu Mekanikoen Garapena Diagnosi Klinikoen Laborategia
MENDIZORROTTA				<ul style="list-style-type: none"> Jatetxe eta Tabernako Zerbitzuak Sukaldaritza Pastelgintza eta Okintza 	<ul style="list-style-type: none"> G Gaezkoa E-G Egunezkoa eta gaezkoa E-G A eta D ereduetan eskaintzen diren Zikloak

- L.H.ko Elizbarrutiko Lanaren Ikastetxea
- Lanbide Heziketa osoko Ikastetxea
- HEZKUNTZA SAILArenkin hitzartutako Ikastetxea
- JUSTIZIA ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILAren babespeko Ikastetxea.
- ARABAKO LHko PARTZUERGOKO kide
- HOBETUZ eta INEMek homologaturiko Ikastetxea
- LANBIDEren Ikastetxe laguntzailea
- HETELera eta Kristau Eskolara elkartutako Ikastetxea
- CAJA VITAL KUTXAren Gizarte Ekintzaren baitakoa

